

2014ko Abendua

# K

Oñatiko Udaia 245. zkia.

## KONTZEJUPETIK



## Herriko Bertsolari Txapelketa abian

Bigarren kanporaketa abenduaren 6an jokatu da  
Arrano elkarte, eta finala 20an, Gaztelekuan

# italde

TALDE ERAIKITZAILE - SUSTATZAILEA


**OÑATI ERDIGUNEAN,  
GARAIEAK SALGAI !!**

*Zatoz Informatzera!*

Ramón Irizar kalea 2 • 20560 OÑATI • Tel. 943 782 707 • [www.italde.com](http://www.italde.com)

## ➔ Liburutegiko **BERRIAK**

Tel.: 943 71 61 11 | [www.euskadi.net/katalogobateratua](http://www.euskadi.net/katalogobateratua)



### HAUR LIBURUA

"Los cinco: una tarde perezosa"



### HAUR LIBURUA

"Nire hiztegia"



### CD MUSIKA

"Lou Reed, mila esker"



### CD MUSIKA

"Lurrean etzanda"



### KOMIKIA

"Yo, asesino"



### KOMIKIA

"Black is beltza"



### LIBURUA

"Iazko hezurak"

Oharra: Liburutegian 62 aldizkari dituzu eskuragarri, gai ezberdinetakoak eta 7 egunetarako etxera eraman ditzakezunak!!

### HELDUEN LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:

10:00 -13:00 / 16:30-20:30

Larun.:

10:00 - 13:30

### HAUR LIBURUTEGIA

Ast.-Ost.:

16:30 -19:30



# TXALOKA Ludoteka

## EKINTZA BEREZIAK

**Abenduak 22 ZINE ERRALDOIA 16.45-19.45**

**Abenduak 23 SORKUNTZA TAILERRA 16.45-19.45**

**Abenduak 29 TALO TAILERRA 10.30-13.30**

**Abenduak 30 WII TAILERRA 10.30-13.30**

**Urtarrilak 5 JOLAS KOOPERATIBOAK 10.30-13.30**

**ATE IREKIAK egunero.**

**Hurbildu eta ezagutu gaitzazu!**

**ASTELEHENETIK OSTIRALERA 16.45-19.45**



# GUTUNAK

Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera datu hauek bidali beharko dira: igorleraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g • 20560 • OÑATI / Tel.:943 78 20 72 / Posta-e: kontzejupetik@oinati.net

## Txistulariak eta txistua

Lander Diaz de Gereñu Olabarri

**A**zaroko Kontzejupetik aldizkarian Airitzien atalean agertu zen artikulua baten ingurura nator. *Txistua eta herriko jaiak* izenburupean, Fernando Mendi-guren idatzitakoari buruz ari naiz.

Ni Lander naiz, Oñatiko Aita Madina Txistulari Taldeko partaidea. Ez dut esango Pernandok bere idazkian adierazten duen gauzaren batekin ados ez nagoenik, gauza ezberdin askori buruz hitz egiten baitu, hala nola, Iriartetarrak, herriko jaietako kaleko giroa... Baina une batean, nire ustez, ezjakintasunez adierazitako zerbaitekin egin nuen topo, eta minduta sentitu nintzen. Eta beste gauza asko ere pasa ziren nire burutik, eta ez guztiak politikak edo gustukoak. Zehazki, hau idatzi zuen Pernandok: "Eta ausartuko nintzateke esaten, hau ausardia nirea, hutsune edo gabezia honen atzean hutsune instituzionala eta txistularien utzikeria dagoela; izan ere, eskuartean bestelako lanak dituztelako ez diote txistuaren printzipioei eusten eta horrela galarazten dabilta jaien muina eta indar guinea izan dena."

Utzikeria. Ez besterik; utzikeria.

Ezjakintasuna esango nuke nik. Eta burutik pasa zaizkidan beste gauza asko. Baina horrelako leku batean errespetuz aritu behar omen da.

Une honetan txistuaren panorama oso eskasa da Oñatin, eta nik neuk oso etorkizun beltza ikusten diot; ez hamarkada batzuk barru, ez, bizpahiru urte barru. Nahiko nuke oker egotea. Taldean geratzen garen kide apurrek ezin diogu esku artean daukagun lanari eutsi.

Nik neuk, eskutitz hau idatzi baino egun batzuk lehenago *Euskara, añubea eta eguzkibegixa* emanaldian parte hartu nuen, horrek ekarri zituen entsegu guztiekin. Antonino Ibarrondoren omenez Oñatiko Musika Bandak grabatu duen diskoan parte hartu nuen eta musika egunetan izango den kontzertuan ere parte hartuko dut. Datorren igandean Aramaioko Gantzaga auzoan Arrasate Musikaleko txistu-

## OHAR ETA DEIALDIAK

### ► DANBORRADA KO TRAJEAK ITZULTZEKO EGUNAK

Danborradako trajeak entregatzeko deialdia egin dute antolatzaileek. Kultur etxera eraman behar dira, **ABENDUAREN 9TIK 13RA** (larunbata barne), arratsaldeko 16:30etatik aurrera. Ahalik eta txukunen eramatea eskatzen da.

### ► ESKER ONEZ

Hermansoloña gobernuz kanpoko erakundeak eskerrak eman nahi dizkie Antonino Ibarrondo zenaren omenezko kontzertu zikloa antolatu dutenei. Kontzertuetako diru-eske mahaietan batutakoa Argentinako Jose C. Paz hirian martxan jarri asmo duten arotzeria eta soldadura tailerren proiektura bideratuko dute. Eskerrak, baita ere, jakina, laguntza eman zuten herritar guztiei.

lariekin batera kontzertua emango dut. Egun berean, arratsaldeko seiak eta erditan, Dantzara Plazara izeneko ekimenean parte hartuko dut Udaletxeko arkupetan jendeari plazan dantza eragiteko asmoz. Bide batez, ekimen honen sortzailea eta antolatzaileetarikoa bat naiz. Baita Gabonen inguruan antolatzen dugun kantu saioarena ere. Honetaz gain, hamabosteroko saioetan parte hartzen dut (igandeetako goiz eresiak eta dantzaldiak). Jose de Azpiazu Musika Eskolan txistu irakasleari laguntzen diot bertan ikasten ari diren gazteenekin taldean jotzen ahalik eta azkarren era duin batean kalera irten daitezen txistua jotzera. Hainbat partitura berreskuratu eta moldatu ditut gure ekitaldietan jotzeko. Oñatz dantza taldearekin hainbat saiotan parte hartu izan dut. Jubilatuen egunean etxean bazkaltzen ari nintzela, Oñatz dantza taldeko dantzari txikien emanaldira joateko hitzeman zuen txistulariak huts egin zuenean, mahaitik jaiki eta hamar minutuan han nintzen nire txistu eta danbolinarekin.

Utzikeria.

Jarrai nezake, luze gainera, baina geroz eta konbentzituago nago, azken finean, egia dela eta nire utzikeria besterik ez dela izan, baina ez txistuarekiko, nire familiarekiko baizik, nire aisialdirako denbora haiei eskaini beharrean, txistuari eskaini baitiot. Ez zaizkit askotan haserretu etxean, ni bezain konprometituak baitaude, baina

aurpegi txar asko (bidezkoak gainera) ikusi behar izan ditut. Eta ez da gozoa. Sarri heldu naiz etxera txistua eta danbolina eskutan dudala, nire seme-alabak ohean daudela, haiek ikusi gabe egun osoa iragan eta gero. Eta ez dira ohera bakarrik joan, norbaitek egin behar izan du lan hori.

Inork uste badu gurea utzikeria dela, musika ikasi eta gero txistua jotzen ikastera gonbidatzen dut, zaletasun hau (ez baikara honetatik bizi) zein *esker onekoa* den konturatu dadin. Eta horrela, nik nire utzikeria alde batera utzi eta geroz eta buruhauste gehiago ematen didan zaletasun hau utzi ahal izango dut.

## Zuzenketa

*Olatz Urteaga eta Amaia Olariaga  
Elkarlanean akademia*

**U**rrian argitaratutako alean, enpresa ekimenean atalean, psikologia eta logopedian diagnostiko eta tratamenduak egiten ditugula jarri genuen. Honekin, gure asmoa ez zen inola ere osasun zentro bati erreferentzia egitea. Argi utzi nahi dugu, gure formakuntza: entzumena eta mintzairan graduatua eta psikologian lizentziatua dela, eta gure lana arlo akademikora mugatzen dela.

Barkatu eragozpenak.

## Tokiko Gobernuari Galdezka



### ZABORRA LURREAN



Garagaltzako hondakinak batzeko ekarpen gunearen ingurua zabortege bihurtzen ari da, jendeak kanpoan uzten dituelako hondakinak. Noren ardura da horiek batzea? Halakoak ebitatzeko neurririk hartu behar al du Udalak?



Udalaren gain ardura jarri aurretik ohartarazi nahiko genieke herritar guztiei ekarpen guneak ez ditzatela bereiztu gabeko hondakinak uzteko toki bezala erabili. Horrela egin dela detektatzen dugun bakoitzean brigadako udal langileak edo mankomunitatekoak pasatzen dira hondakinak jaso eta ingurua txukuntzera, baina berriz diogu gune hori ez da zaborra uztekoa eta hori egiten ari diren herritarren portaera irmoki salatzen dugu.

### ESKOLABUS



Eskolabus ekimena martxan jarri zenean, besteak beste, autobus handia kendu eta zerbitzua autobus txikiagoen bidez eman ahal izango zela aipatu zen, trafiko arazoak ekidin asmoz. Hala ere, oraindik autobus luzea dabil egunero aurrera eta atzera.



Eskolabus proiektuak ikastetxeen arteko garraioa optimizatzea zuen helburu nagusienetakoa eta esan dezakegu hein handi batean lortu dela, nahiz eta autobusen tamaina momentuz ez den nabarmen aldatu (bai txikitu da pixkat). Dena den, proiektu horrek aurtengo ikasturtean izango du jarraipena Eskolara Oinez ekimenarekin eta bere arrakastak ondorioztatuko du autobusen tamaina gehiago txikitzea posible den edo ez.

### ZINE KARTELDEGIA



Garai batean hile osoko zine karteldegia berri ematen zen Kontzejupetik aldizkarian. Jakin nahi nuke zergatik ez den orain azaltzen. Ziinea gustuko dugunok eskertuko genuke, arrazoi askorengatik: ez ginatke hiriburuetara joango, dirua herrian gastatuko genuke, kotxea gutxiago erabiliko genuke eta gutxiago kutsatuko genuke...



Gurea bezalako zine areto txikiek azken orduko mugimenduei begira egon behar izaten dute film estrenatu berriak ahalik eta azkarren ekarri ahal izateko. Era honetan lan eginez, azken orduko aukerak aprobetxatzen saiatzen gara. Bestela, hile osoko programazioa egingo bagenu, ezingo genuke estreinaldiak hain azkar ekarri, edo, bestela, ez genuke beteko aurrez programatutakoa. Horren aurrean, aste bat edo biko aurretiaz programatzea hobetsi dugu.

## PERTSONA NAGUSIEN ZAINTZARAKO ZERBITZUA



Tfno: 943 71 84 79

bidebarri@terra.com

iurrutia.bidebarri@gmail.com

### ADMINISTRAZIO LANAK

-Kontratua egitea

-Gizarte Segurantzaren alta ematea

-Nominak egitea

### HAUTAGAIEN AZTERKETA

-Enpresako konfidantza azko langileak

-Esperientziadunak

## oposiziotik



Lourdes Idoiaga - EAJ

## ERANTZUKIZUN POLITIKOA

**A**zkenaldian medioetan hainbat prebarikazio, korrupzio eta delitu kasu larriak izan ditugu hizpide. Neurri handiago edo txikiago batean gainera erakunde esparru ia guztietan ematen ari dira aipatu kasuak: udaletan, diputazioetan, gobernu autonomikoetan, alderdi politikoetan edota baita zenbait sindikatuetan ere.

Kasu mordoak izan dira eta horiek komunikabideetan oihartzun handia izan dute, ondorioz, herritarren artean logikoa den desilusio, desengainua eta haserrea pizten da, baina horrek dakarren arriskua da beste balore batzuen baitan politika egiten dutenak ere zaku berean sartzea. Herritarrek nazkatuta egotea erabat normala da, baina bidezkoa da baita ere politika egiteko beste eredu batzuk badirela aldarrikatzea.

Gauzatu dituzten delituak larriak izan dira oso, baina soilik errudunei egotzi behar zaizkie zigorrak, legea zorrotz aplikatuz eta lapurtutako ondare guztiak itzul ditzaten exijituz. Bestalde, larriena horrelako delitu eta korrupzio kasuak erakunde publikoetan gertatzea da, legez Auditoriak pasa behar dituztelako eta Kontu- Auzitegi zein oposizio alderdiek ere kontrolatzen dituztelako. Dударik gabe, arduragabekeria politiko partekatua handia izan da gai honi dagokionean.

Herritarrek nazkatuta egotea erabat normala da, baina bidezkoa da baita ere politika egiteko beste eredu batzuk badirela aldarrikatzea

Hala eta guztiz ere, politika egiteko eta politikan jarduteko beste ereduak badirela uste dugu, erantzukizunean oinarritutakoak, hain zuzen. Aitortu beharra dago politikari gehienek azken eredu honen arabera lan egiten dutela. Ardura politikoaz jarduteak politikariei exijitzen die zintzotasunez, etikaz, koherentziaz, zorroztasunez eta gardentasunez jokatzeko, gobernuan edota oposizioan egonda, gehiengo absolutua edo ta gutxiengoa izanda gobernatzen bada ere.

Politikan etikaz jokatzeko ezinbestekoa da, gure jardunari zilegitasuna emateko eta erantzukizunez lan egiteko, eta horretarako beharrezkoa da guztiok printzipio hori elkarbanatzea. Gobernatzen duenak gardentasun eta zorroztasuna muturreraino eraman behar ditu, eta oposizioak berriz, bere eginkizunak bete, gobernuaren jardura kontrolatuz. Inork ezin du beste aldera begiratu. Guztiok erantzukizun politikoaz jardun behar dugu.

## gobernutik



Oier Irizar - Bildu

## EUSKAL HERRIKO PROZESU ERATZAILEA ABIATZEKO UNEA

**A**zaroaren 9ko Kataluniako kontsultaren biharamunean, **eta Espainian demokraziaren argiak itzalita dauden bitartean, Kataluniak eta Euskal Herriak beren argi propioa behar dute**, prozesu eratzaileak abian jarri bi herrietan.

**Kataluniako prozesuak bost urteko epean egindako bidea egundokoa da.** Ezker independentistak bultzatutako ekimen batetik bere etorkizunaren jabe izan nahi duen Herri baten aldarrikapenera igaro dira.

**PSOEn gobernuak, lehenengoz, eta ondoren PPren gobernuak** kataluniar herriarekiko eta bere instituzio nagusiekiko adierazitako **mespretxuzko jarrera mingarriak** Katalunian sortzen ari zen prozesu independentista azkartu egin du.

Katalunian, bertako egoera ekonomiko -eta soziala- larria eta Estatuarekiko menpekotasuna ez dira honezkero bateragarriak. **Kataluniako ordezkari instituzionalak Estatuko agintariekin elkarriketa egiten saiatu dira, baina behin eta berriz alferrik izan da.** Estatuak Kataluniako instituzioak **aldebakarreko bidea hartzera behartu ditu.**

Estatuaren jarrerak argi adierazten digu ez dela Euskal Herriarentzat ‘burujabetza partekaturik’ izango, ezta “berdinen arteko itunik” ere

Gauzak horrela, ANC-k bideratzen duen herritar bultzadari erantzunez, CiU-k, ERC-k, ICV-k eta CUPEk herritarrei Kataluniaren etorkizun politikoari buruz kontsulta egiteko data eta galderak ezarri zituzten. Baina Estatuak kataluniarrek botoa emateko ahalegin oro eragozten saiatu da. Beraz, **espainiar Estatua bera Kataluniako herritarrekiko konfrontazio demokratikorako agertoki batean kokatu da, non espainiar legeak eta kataluniarren borondate demokratikoa aurrez aurre izan ziren azaroaren 9an.**

Inork oraindik zalantzarik izanez gero, espainiar **Estatuaren jarrerak argi eta garbi adierazten digu ez dela Euskal Herriarentzat ere “burujabetza partekaturik”, “berdinen arteko itunik” ala Eskoziakoa bezalako prozesurik izango.** Guk gure bidea egin beharko dugu eta EH Bildutik prestutasun osoa daukagu.

Bitartean gure prozesurako Kataluniatik **bi ikasgai nabarmentzea komeni da:** alderdi politikoen agendatik kanpo dagoen **herritar bultzadaren garrantzia** eta **erabakitze**ko eskubidearen aldeko indar politikoen **arteko batasunaren beharra**. Ez dugu uste, gainera, kontrajarritako bideak direnik, **bata eta bestea lantzea ezinbestekoa da, alegia,** zeren eta elkar laguntzen eta elikatzen baitute.

## KONTZEJUPETIK

**ARGITARATZAILEA** Oñatiko Udala **ZUZENDARIA** Iñigo Arregi  
**PUBLIZITATEA** Aratz Losada **DISEINUA ETA MAKETAZIOA** Aratz Losada  
**KOLABORATZAILEAK** Jerardo Elortza **SAILAK**  
Etxagok Ama Begira (Gaztelekua) **INPRIMATEGIA** Gertu  
**TIRADA** 5.500 ale **LEGE GORDAILUA** SS-357/91

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa • 20560 -OÑATI

Tel.: 943 78 20 72 • Faxa: 943 78 22 53

**Posta-e** kontzejupetik@oinati.net • **Publizitatea:**

publi@oinati.net



## LARROSA EDERREAN PETALO BAT FALTA

**U**rriaren 31n Santanan. EUSKARA, AÑUBEA ETA EGUZKIBEGIXA ikuskizuna. Aretoa bete-betea. Euskerak, Historian zehar, 36 ko gerraraino, eta, batez ere, Frankismoa nagusitu zenetik jasan izan duen zapalkuntza latzaren dokumentala. Hizlari, aktore, musikari eta dantzarien bidez burututako lan zoragarria, hunkigarria.

Gerra ondorengo urteak latzak, gogorrak. Debekuak, zigorrak, heziketa osoa gazteleraz, 'Cara al sol' eta beste abesti falangistak, humiliazioak, atzerriratuak, euskal heziketa zulo sakonean lurperatuta. Euskera etxeetan, kalean, elizan apur bat. Institutuzioetan kakapeian. Baina danbatekoek bizkarrean jo arren, batzutan kolpeek hankak bizkorrazten ditu eta horixe gertatu zen 1958tik aurrera. Zutitzen saiatu, lokal batzuetako 'katakunbetan' ordu batzuk euskeraz erakutsi, han eta hemen ikastolak sortu zailtasunez eta aurrera. Oñatin 1967an hasi zuen ibilbidea ikastolak. Gipuzkoa eta Bizkaiako herri gehienetan bezala. Ikastolek eman eta ematen duten uztza bikaina denok dakigu. Horrela azaldu zigun Kontxita Beitiak, ikastoletako lehenengotako andereño izandakoak.

Baina 2014. urtean, euskeraren berrindartze eta gizarteratze hori MEMORIA HISTORIKOAK ez badu bere barnean Eskola Publikoek eta Ikastetxe askok ezerezetik egin duten lan emankorra jasotzen, jai dugu. Santanako Ikuskizunean ez zen aipamenik ere



Bittor Madina



Eskola publikoek  
egindako lana ere  
jaso behar du  
Memoria Historikoak

egin. Total ahaztua, baztertua. 'Memoriari' ez dio mesederik egiten eta ez da zuzena izango.

Euskalerriko 'Eskola Nacionaletan', euskera 'zero tragikoan' zegoen. Irakasle euskalduna, gutxi: ia gehienak ikastoletan. 1974ean Oñatin, bi maiXu bakarrik, euskeradunak. Ikaslegoa, euskaldunen eta etorkin edo erdaldunen seme-alabak ziren. Urte hartatik hasi genuen euskeraren kandela pizten. Hasiera zailak. Orduz kanpo hasi eta berehalaxe bi bat ordu astean. Hortik aurrera, 'B' eta 'D' eredu-tara martxan jartzen. 1977an, Gipuzkoako sei eskolek eta herri txiki-txiki-txiki, ikasgaiak euskeraz ematen hasi ziren. Harresi itxia zabaldu genuen. Mugimendua, abian. Urtetik urtera, zabaltzen.

Hemen gelditu zen eta euskeraz tutik ere ez zekien irakasle euskalduna, urte batzuetan bere kontura eta geroago 'Iralen' bidez euskaldundu egin da. Euskeraz erakusteko derrigorrezko baldintza. Jatorriz euskaldunak zirenak eta besteak, berriz, gehituz joan dira. Gaur egun, Eskola Publikoetan 'D' eredu-an irakasten da (euskera, alegia). Datuek diote: EAE-an, Herri Eskolek %50a baino ikasle gehiago euskalduntzen du.

Horregatik, ikastolek aspalditik sortu duten larrosa baliotsu eta koloretsuari beharrezko zaigun beste petalo ederra erantsi behar diogu: Eskola Publikoaren fruitua.

## PATUAREN LOREAK

**M**aite nau. Ez nau maite. Eguzkilorearen petaloak apurtu ditut gaurkoan ere. Banan zenbatuz, patuari galdetuz, ea hark erantzunik emango didan. Zai nauzu, zai, denboraren erretratua islatzen duen aurpegi honetan. Ametsak utopiak badira, desioak gaitzak maiz, zergatik konprimatzen ote dugu gure patua lore-objektu batek eskaintzen digun banalitatera?

Loreak politak dira. Loreek bizitza hornitzen digute. Etxeak, parkeak, kaleak... loreez apaintzen ditugu. "Home sweet home" kartelaren azpian antzaldatzen diren irudien parean, nortasuna eraikiz egunen joan-etorrian, lore-sorta batek agurtzen nau etxera heltzen naizen bakoitzean.

Baina, gaurkoan ere, ohean etzanik horma huts horri begira galdetzen dut "maite al nau edo ez nau maite?" infinituan, ezerezean, hor goian ezkutatzen den zerbaitek erantzunik emango ote

didan esperoan. Aldiz, patua idatzirik dago. Nonbait, gure bizitzako koadernoak amaiera puntua idatzirik du. Bertan batzen dira esperientziak, bizitzaren lerroak, bizitzak zer eskaini ahal digun... nahiz eta ondoren, norberak bere ametsak jarraitu ditzakeen eta patuaren kateak behin-betiko apurtu.



Nik behintzat ziur  
dakit jaio izan  
garenetik bizitza  
idatzia dugula



Amaia Aranzeta

Patuaren preso gara; ezin diogu errealtate horri uko egin. Batzuek alderantziz pentsatu arren, gizakiok ez dugula ezer idatzirik, nik behintzat ziur dakit jaio izan garenetik bizitza idatzia dugula. Hala ere, "Bizitza" berridatzi dezakegu, istorio berriak gehitu; min eman diguten esperientzietatik ikasi, oker jokaturakoz zuzendu; maite izan ditugunak sentitu eta maite nauzun edo ez galdetuz, lore-joko honetan erori. Bai edo ez, hori da guztia; egingo al dut edo ez... ez naiz ausartuko edo egin dut! Eta aurrera-pausoz liburua bete. Loreak gustatzen zaizkit.

Loreak politak dira. Gaurko petaloak "bai" esan dit; gaur, aurrera joango naiz.

**ARRIZABALAGA**  
**Aroztegia**

Berezaio Ind. 10  
Tel. 943 78 14 64

**PAKITA**  
**Altzariak**

Sta. Marina, 6  
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIKOA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

**IRAZOLA**

**Okindegia**

Larrañaga ezuzoa, 44  
Tel.: 943 78 25 97  
Mug.: 688 630 754  
OÑATI

Baserriko egia, egurrezko labea

# ETXEBIZITZA BERRIAK OÑATI ERDIAN

*Eraikin berria  
bukatzear  
Maiatzaren 1 Plaza,  
2. zenbakian*

*3 logeletako  
etxebizitza zabalak*

*Informazioa  
eta Salmenta:*

**Larrain S.L.**  
**Tel.: 943 21 33 88**  
**[www.moyua.com](http://www.moyua.com)**

Grupo **MOYUA**

**Larrain**  
INMOBILIARIARTEK



# BIZIKLETENTZAKO BIDEAK

## margotuko ditu Udalak herriguneko hainbat kaletan

**B**izikletaren erabilera sustatzeko asmoz, bizikletentzako bideak margotuko ditu Udalak herriguneko hainbat kaletan datozen egunetan, (eguraldiak horretarako aukera ematen duenean). Ondoko planoan ikus daitekeen moduan, Santa Marina plaza, Bakardadeko Ama, Portu Kale, Euskadi Etorbidea, Aita Madina, Lizaur, Bidebarrieta, Arantzazuko Ama, Auzabarri, Ultzezin eta Ramon Irizar kaleetan marraztuko da bizikletentzako erraila.

Norabide bakarrek kaleetan bizikletentzako erreila bidearen erdian margotuko da; norabide biko kaleetan, errail bana bidearen alde banatan. Etenik gabeko marra gorri marraztuko dira bizikleta bideak, Kale Zaharrean daudenak bezala.

### SAREA OSATU

Oñatin gaur egun dauden bidegorriak lotu eta bizikleta-bideen sarea osatzea da ekimen honen helburua, Udalak urte hasieran onartu zuen Hiri Mugikortasun Iraunkorrerako Planean jasotakoa betez.

Orain marraztuko diren bizikleta-bide hauek mistoak izango dira; hau da, motordun ibilgailuekin partekatu beharrekoak, baina marra gorriek nolabaiteko babesa ematen diote bizikleta gidariei. Gogoratu, herri barruko kale hauetan 30km/O. dela gehieneko abiadura muga.



**Kale Zaharrean bezala marra gorri margotuko dituzte bizikleta bideak; norabide bakarrek kaleetan bidearen erdian, eta norabide bikoetan erreil bakoitzaren erdian**

## Ugarkalde eta Olabarrieta arteko bidegorria egin nahi du Udalak

Herrigunea eta Olabarrieta lotuko dituen bizikleta eta oinezkoentzako bidea egiteko asmoa du Udalak datorren urtean. Bidegorriak 3 metroko zabalera izango du (Oñati eta San Prudentzio artekoak bezala) eta GI-2630 errepidearen ertzean egokituko da (Olabarrietara goazela bidearen ezkerreko aldean). Errepidetik babesteko hesia jarriko da, eta argiteria ere bai.

Horretarako, zanga bat zabaldu beharko da bidegorriaren luzeera osoan, eta hori aprobetxatuz, Olabarrietako auzoaren zerbitzuak hobetzeko aukera dagoela ikusi du Udalak, hala nola, gasa eta telekomunikazioak.

Horregatik, Udalak eskaria luzatu die gune honetako zerbitzuen hornitzaileei (EDP Naturgas Energia, Euskaltel, Telefonica) obrak ematen duen aukera aprobetxatuz egokitu dezatela euren azpiegitura, Olabarrietako bizilagunek zerbitzuak kontratatzeke aukera izan dezaten.

Bestalde, Udala bidegorriak hartuko dituen lursailen jabeekin biltzeen hasita dago, bidegorria egokitu ahal izateko beharrezkoak diren terrenoak lortzeko aukerak aztertu eta adosteko helburuarekin.



Bizikleta-bide berriak margotzeaz gain, Errekalde auzoan lehenik margotuta dagoena berrituko dute



## Bizikletentzako aparkaleku gehiago

Bizikletentzako bideak margotzeaz gain, bizikletentzako aparkaleku berriak ere jarriko ditu Udalak, Hiri Mugikortasun Jasangarriko Ekintza Planean jasotakoa betez. Oraingo, zortzi aparkaleku berri jarriko ditu: **Zuazola institutuan, Natur Eskolan, Goiena parkean, Roke Azkunen, Iturritxon eta Ultzezin** kalean. Azken honetan, patineteak uzteko lekua ere jarriko du.

Horiez gain, **Ikastolan, Gaztelekuan eta Elkar Hezin** bizikleta aparkaleku berriak jartzeko aukerak aztertzen ari da Udala.


## SAN PRUDENTZIOKO AUTOBUS GELTOKI BERRIA

### Datorren astean hasiko dira egokitze lanak

Foru Aldundiko Mugikortasun sailetik jakinarazi digutenez datorren astean zehar hasiko dira San Prudentzioko autobus geltoki berria egokitze lanak, eta, ustekaberik ez bada, urte amaierarako egongo da prest.

Ondoko planoan ikusten den moduan, Gurutze Gorrikoen aparkalekua eta bidegorriaren lurpeko pasabidearen arteko orubean egokituko dute geltokia. Bost metroko zabalera izango duen espaloian jarriko dute markesina, behar bezala argizatuta. TFT pantaila bat ere egongo da bertan. Atzealdean, 45 autorentzako aparkaleku publikoa egokituko dute.

Geltoki berri hau norabide guztietako autobusentzat izango da. Modu horretan, bidaiariak errepidea gurutzatzen ibiltzea saihestuko da. Oñatitik doazen autobusak zuzenean sartuko dira geltokira. Arrasate eta Bergara arteko autobusek, eta ibilbide luzekoek, maniobra bihurri samarra egin beharko dute geltokian sartzeko. Hori kontutan hartuz, eskaria dagoenean



bakarrik geratuko dira San Prudentzioko geltokian. Horretarako, eskariak egiteko plataforma bat garatu du Aldundiak, eta geltokian bertan eskariak egiteko pantaila bat jarriko dute. Telefono mugikorraren bidez ere egin ahal izango da eskaria.

## ‘APAOLAZA ALARGUNA’ kaleak ‘MARIA IRIZAR’ izena hartuko du

Orain arte ‘Apaolaza alarguna’ kalea izan denari ‘Maria Irizar’ izena jartzea erabaki du udalbatzak ahobatez, berdintasunaren aldeko neurri gisa.

Maria Irizar Etxaluzeko señoia izan zen, eta oso baldintza onetan utzi zizkion herriari etxe inguruko lurrak J.L. Lazarraga, A. Lizarralde eta M. Zelaia kaleetako poligonoak eraikitzeko. Eskerrak emateko, orduan zabaldu zen kaleetako bat Mariari eskaini nahi izan zion Udalak, eta, dirudienez, Mariak berak eskatuta, ‘Apaolaza alarguna’ izena (Frantzisko Apaolaza medikua izan zen bere senarra) jartzea eskatu zuen. (*Aldizkari honen 225 zenbakiko Antxiñako Fotografixan daukazue honi buruzko informazio gehiago*).

Orain, 50 urte pasa ondoren, kale horri dagokion izena jartzeko unea iritsi dela erabaki du udaleko Berdintasun sailak, herriko talde feminisek egindako eskaria aintzat hartuz. Eta aurrerantzean, herrian sortzen diren kale berriak izendatzeko garaian, Oñatiren alde egindako lanagatik nabarmendu diren emakumeen izenak kontuan hartzea onartu du udalbatzak. 1994az geroztik jatorrizko toponimia eta inguru horretan izandako lanbideak hartzen ditu Udalak irizpide bezala kale berriei izena jartzeko.



MARIA IRIZAR  
Etxaluzeko señoia

## 69 herritarrek eman dute izena San Martingo ortuetarako

Udalak San Martinen egokituko dituen aisialdiko baratzeen zozketan parte hartzeko 69 gizon-emakumek eman dute izena. Balizko erreklamazioak egiteko hamar eguneko epea igarota, abenduaren 11n onartuko da behin betiko zerrenda, eta orduan zehaztuko da zozketa eguna. Gogoratu, San Martingo baratze parkean 70 ortu egokituko direla.

## Bidebarrietako etxe soziala errentan emateko deialdia

Bidebarrieta 24-3.D etxebizitza sozialaraen errentamendu kontratua 2015eko maiatzaren 31n amaituko denez, deialdi berria egitea erabaki du Udalak. Deialdia GAO-n argitaratu ondoren 15 lan eguneko epea egongo da eskariak egiteko. Oñatiko erroldan bost urteko antzintasuna izatea eskatzen da. Bestalde, gehienezko diru-sarrera muga ere badago. Informazio gehiago [www.oinati.eu](http://www.oinati.eu) webgunean.

### GARBIKETA ADMINISTRAZIOA ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarteen administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati

PINTURAS  
**URBIA**  
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15

# Hemen da E-LIBURUTEGIA



## ► LIBURU DIGITALAK MAILEGUAN HARTZEKO AUKERA DAGO JADA UDAL LIBURUTEGIAN

**E**usko Jaurlaritzako Kultura sailak eta Euskal Herriko nahiz Espainiako editoreen elkarrekin sinatutako akordioari esker, aurrerantzean liburu digitalak maileguan hartzeko aukera izango dute EAEko udal liburutegietako bazkideek.

Bi aukera daude mailegu digitala egiteko. Batetik, liburu digitala gure liburu irakurgailura (edo tabletera, edo mugikorrera) deskargatu dezakegu; bestela, liburua deskargatu barik, ordenagailuan edo tabletean *on line* irakur dezakegu, Interneteko konexioa baldin ba-daukagu.

Modu batera edo bestera, 21 egun izango ditugu liburua irakurtzeko. Ondoren, ezabatu egingo da gure gailuetatik. Berrito mailegatzeko aukera ere egongo da, liburu horrek beste erreserbarik ez badauka. Erabiltzaileek aldiro liburu digital bat bakarrik hartu ahal izango dute maileguan.

Formato digitaleko liburuak babestuta egongo dira, kopiak egitea edo besteengana zabaltzea eragozteko.

### 3.000 TITULU AUKERAN

Une honetan Eusko Jaurlaritzak 1.500 titulu jarri ditu eLiburutegian, baina urtea amaierarako 3.000 egongo dira. Azken nobedadeak, literaturako klasikoak eta udal liburutegietako profesionalen ordezkariak batek aukeratutako liburuak aurkituko ditugu

### 21 EGUN

Mailegu digital bakoitzak 21 eguneko iraupena izango du

### ALDIKO BAT

Alldiko liburu digital bat hartu ahal izango dugu maileguan

### BAZKIDE TXARTELA

Mailegu digitala egin ahal izateko udal liburutegi bateko bazkidea izan behar da



## ■ NOLA EGIN MAILEGU DIGITALA

Formatu digitaleko liburu digitalak maileguan hartzeko [www.euskadi.net/liburutegiak](http://www.euskadi.net/liburutegiak) webgunean sartu behar dugu. Derrigorrezkoa da udal liburutegiko bazkidea izatea, mailegua egin ahal izateko bazkide txarteleteko zenbakia eta pasahitza eskatuko baitugu. (Pasahitza ahaztu bazaizu, liburutegira joan eta berria emango dizute).

**LIBURUA DESKARGATU.** Liburua maileguan hartzeko bi modu daude. Alde batetik, liburu digitala deskargatzeko aukera dugu gure ordenagailura edo bestelako gailu mugikorrerara (tableta, ebook-a, telefonoa...). Horretarako, Adobe Digital Editions programa instalatuta eduki behar dugu. Mugikorrean irakurri ahal izateko *Blufire* programa deskargatu behar da. Deskargak Epub formatuan egingo dira. Beraz, irakurgailu guztiak erabili ahal dira, Kindle gailuak izan ezik.

**DESKARGATU BARIK.** Liburua deskargatu barik, *streaming* bidez (on line) ordenagailuan edo tabletean irakurtzeko aukera dugu, Interneteko konexioa baldin badaukagu. Edozein zalantza argitzeko udal liburutegira jo.

## ARANBURU ALTZARIAK

Kale Zaharra, 21  
Kale Barria, 11  
Lizaur A., 7  
OÑATI  
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO  
GUZTIAK  
ALTZARIAK**

**LANPARAK,  
TAPIZAK,  
KORTINAK**

■ Manikura eta Pedikurak  
■ Solariuma  
■ Gorputzeko Tratamenduak  
■ Aurpegiko Tratamenduak  
■ Depilazioa  
...

San Lorentzo 4 beheka | Tel. 943 78 08 86 | 20560 OÑATI  
email/twitter: [estetika.distira@gmail.com](mailto:estetika.distira@gmail.com)

bertan. Hemendik aurrera irakurleek ere izango dute aukera katalogo horretan zein titulu ikusi nahiko luketen adierazteko aukera e-liburutegiaren webgunean bertan. Gainera, irakurritako liburuari buruzko iritzia ere eman ahal izango dute irakurleek sare sozialen bidez.

### MAILEGUAK DOAN

Mailegu digitala doakoa izango da irakurleentzat eta liburutegientzat, baina Eusko Jaurlaritzak lizentziak erosi beharko dizkie editoreei eta hauek dagokion portzentaia ordainduko diote idazleari.

Lizentzia bakoitzarekin liburu bat 20 aldiz mailegatu ahal izango da gehienez eta kopuru horretara iritsitakoan Jaurlaritzak lizentzia berria erosi beharko du. Aurten 270.000 euro bideratu ditu Jaurlaritzak liburu digitalen lizentziak erostera.

Mailegu digitala martxan jartzeak ez du esan nahi liburutegiek papera baztertuko dutenik. Jaurlaritzako jakinarazi duenez, aurten 820.000 euro bideratu ditu liburuak (fisikoak) erostera, 2013an baino 140.000 gehiago.

Mailegu digitalaren bidez liburutegietako eskaintza osatu eta zabaltu egingo da, aukera berriak emanez irakurleei, eta, bereziki, 12-16 urte arteko erabiltzaile kopurua hazi daitekeela uste dute sustatzaileek.

Bestalde, mailegu digitalaren bidez pirateria ekidin nahi da, doan irakurtzeko aukera ematen baitu, baina aldi berean industria mantentzen da Jaurlaritzarekin egindako akordioari esker.

## JOSTAILUEN TRUKE AZOKA ABENDUAREN 13AN

Gabonak datozela eta, jostailuen truke azoka antolatu nahi du Txaloka ludotekaK abenduaren 13an. Bizi dugun krisi egoera honetan, bererabilpena sustatu, kontsumismoa murriztu, elkartasuna eta lankidetzaz bultzatu, eta jostailuei bigarren aukera ematea da helburua.

Horretarako, Txaloka ludotekan joastailuak batuko dituzte. Trukean haur bakoitzak txartel bat jasoko du eta, ondoren, azoka egunean txartel hori beste jostailu batengatik aldatu ahal izango du.

Jostailuek bete beharreko baldintzak hauek dira: egiera onean eta osorik egotea; sexu bereizketa edo indarkeriaren aldeko jarrerak erakusten dituztenak ez dira trukatu (adibidez, pistolak); jostailu txikiak multzoka trukatu (adibidez, kanikak, kotxetxoak...)



### JOSTAILUAK JASOTZEKO

Abenduak 9. Txaloka ludotekan  
(16:45-19:45)

### TRUKERAKO AZOKA EGUNA:

Abenduak 13, herriko plazan  
(10:30-13:30)  
(Eguraldia txarra baltz ludotekan)

## GAZTELEKUKO ZERBITZUAK KONTRATATZEKO DEIALDIA

### ABENDUAREN 12A DA PROPOSAMENAK AURKEZTEKO AZKEN EGUNA

Gaztelekuan eskaintzen diren zerbitzuak emango dituen enpresa kontratatze deialdi irekia egin du Udalak. Zehazki, hauek dira kontratatu nahi diren zerbitzuak:

- 8-11 urte arteko haurrei (kuboa) eta 0-7 urteko familia gunean (sotoa) arreta eskaintzea, Haurren balio anitzeko zerbitzuaren atalak.

- Nerabeen balio anitzeko zerbitzua ematea.
- Informazio-komunikazio gunea.
- Informatika gela.
- Ekipamenduaren kudeaketa.

Zerbitzu guztiak poltsa batean esleituko ditu Udalak, eta urtebeterako kontratua egingo du, beste bi urtez luzatu ahal izango dena. Eskaintzaren gehienezko prezioa lehen urterako 127.000 eurotan (BEZ kanpo) finkatu du Udalak.

Esleipena egiteko orduan eskaintza ekonomikoa (20 puntu), eman beharreko zerbitzuaren oinarri teorikoa eta helburuak (10 puntu), lan-metodologia (40 puntu), proposamena udalerraren errealitatera egokitzea (15 puntu) eta hobekuntza proposamenak (15 puntu) baloratuko dira.

Abenduaren 12ra arteko epea dago proopsamenak aurkezteko udal erregistroan (09:00-14:00). Udalaren webgunean ([www.oinati.eu](http://www.oinati.eu)) daude ikusgai deialdia arautuko duten baldintza sorta tekniko eta administratiboak.

## Herritarren partehartzea sustatzeko teknikaria kontratauko du Udalak

Herri mailako garapen komunitarioa eta herritarren parte hartzea sustatzearen aldeko apustua egin nahi du Udalak, helburu nagusi hauekin: herritarren nortasun pertsonalaren garapena eta gizartearen toki aktiboa izateko gaitasuna bermatzea; partaidetza kolektiborako sentimendua garatzea; herriko parte-hartzea duintzea eta eremu publikoarekiko, herriarekiko kezka sortzea.

Horretarako, unibertsitateko diplomatura edo erdi mailako gradua duen teknikari bat kontratatuko du Udalak lanjardun erdiko dedikazioaz urtebeterako, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.



**EGUR-LAN**  
AROSZTEGIA  
LIAMAR S.L.

BEREZIO INDUSTRIALDEA 20560 OÑATI (GIPUZKOA)  
TEL./ FAXA: 943 78 14 59 [liamarsal@gmail.com](mailto:liamarsal@gmail.com)  
[www.egur-lan.es](http://www.egur-lan.es)



**smk**  
san miguel kooperatiba  
943 781 217  
kale barria 6 - 20560 oñati  
[www.sanmiguel.coop](http://www.sanmiguel.coop)

# ATEZ ATEKO INFORMAZIO BULEGOA: OHARRAK

## ETXEKO ALTZARI EDO TRASTE ZAHARREN BILKETA

### ► **NOIZ:** Hileko **OSTEGUN GUZTIETAN.**

-Traste zaharrak atera baino lehen 943791938 zenbakia deitu behar da (helbidea eman). Traste zaharrak 20:00-22:00artean atera behar dira, zintzilikarioen ondora, baina bidea eta esekitokiak oztopatu gabe, ahalik eta txukunen.  
-Landa eremuko auzoetan **HILEKO 2. OSTEGUNEAN** egiten da traste zaharren bilketa. (Jai eguna balitz, aurreko egunean). Aurrez udaletxera (943780411) deitu behar da, eta baserrian bertan egiten da traste zaharren bilketa.

► **ZER ATERA:** - Armarioak, sofak, oheak, sukaldeko altzariak, mahaiak, aulkiak, kunak, eskilarak, apalak, paragueroak, tendereteak, alfonbrak, somierrak, koltxoak, lanparak, koadroak, erlojuak, bizikletak, jostailuak, mailetak, patinak, muletak, ispiluak, lorontziak, camping dendak, sonbrillak, lapikoak, palanganak, kaiolak...  
- Linea zuriko etxe tresna elektrikoak: hozkailuak, garbigailuak, izozkailuak, sukaldeak, labeak, mikrohuinak, josteko makinak...  
- Linea gris marroiko etxe tresna elektrikoak (telebistak, ordenagailuak, irrtiak, inprimagailuak, eskanerrak, teklatuak...).

### ► **EZIN DIRA ATERA:**

- Industria, nekazal eta abeltzaintza aktibitateetan sortutako hondakin handiak  
- Hondakin organikoak, papera eta kartoia, ontziak, erropak.

### ► **BESTE AUKERA BATZUK:**

● **Urrutzuko Garbigunea:** astelehenetik ostiralera (9:00-13:30 / 15:00-19:00) eta larunbatetan (9:00-13:30) zabalik.

● **Berrerabiltzea:** Erabiltzeko moduan dauden gauzak (tresna elektronikoak, altzariak, jostailuak, liburuak...) Oñatiko BERRERABILI dendara (Kale Zaharra 52 / 688220764) edo Arrasateko EKOCENTER-era (Bidekurutzeta 2 / 943771871) eraman daitezke.

● **Trukea.** Bigarren eskuko gauzen trukea edo salerosketa bultzatzeko Gipuzkoako foru Aldundiak sortu duen [www.truke.eu](http://www.truke.eu) webgunea bisitatu.



Horrelako egoerak errepikatu ez daitezzen, arduraz jokatzeari eskertuko genizuke.

## ABEREEN GORPUZKIAK ERREFUSERA

EHIZA sasoia dela eta etxeetan edo baserrian garbitutako hegazti, oilo, koneju, arkume,... LUMAK, LARRUAK, TRIPAK, BURUAK eta bestelako gorpuzkiak ERREFUSERA BOTA!

Konpost plantan ez dituzte onartzen bertako langileen osasunarentzat eduki dezakeen arriskua dela eta, beraz, ezin dira edukiontzi marroira bota.



LEHEN

ORAIN

Era guztietako **IGELTSERITZA** eta **OBRAK** egiten ditugu:

- > **FATXADAK**
- > **TERRAZAK**
- > **ESTALKIAK**
- > **IMPERMEABILIZAZIO**
- > **ERREHABILITAZIOAK**
- > **IGOGAILUAK**
- > **BASERRIAK**

Intenbide onenak isolamendu termikoko sistemetan (SATE).

kuber@kuber.es
Tfno: 943 73 35 73
www.kuber.es



## Errekalde Herri Eskolako jolas guneak erabilera publikoa izango du asteburu eta opor nahiz jai egunetan

► Jolas gunearen ordutegia eta erabilera baldintzak adostu dituzte Udalak eta ikastetxeak

Errekalde Herri Eskolako haur parkeak eta kirol guneak eskola orduetatik kanpora erabilera publikoa izan dezan, erabilera baldintzak, ordutegia eta ardurak finkatzen dituen hitzarmena sinatu dute Udalak eta ikastetxeko zuzendaritzak.

Hitzarmenaren arabera, eskola egun eta orduetan Errekalde Herri Eskolak izango du lehentasuna bertako kirol gunea eta haurren ziburu gunea erabiltzeko. Eskola orduetatik kanpora instalazio hauek erabilera publiko edo komunitarioa izango dute, batez ere Errekaldeko bizilagunei begira. Horretarako,

### EGUTEGIA ETA ORDUTEGIA

#### IRAILTIK UZTAILERA

- 09:00-18:00 Herri eskolaren erabilerarako ordutegia
- 18:00-21:00 Erabilera publikorako ordutegi mugatua

#### ABUZTUA

- 10:30-20:00 Erabilera publikorako ordutegi mugatua

#### ASTEBURU ETA JAI EGUNAK

- 10:30-20:00 Erabilera publikorako ordutegi mugatua

#### OPORRALDIAK

- 10:30-20:00 Erabilera publikorako ordutegi mugatua

ikastetxeko sarrerako ate nagusia, edo kontserjeraren etxe ondoan dagoen burdinezko atea zabalik egongo

da eskola orduetatik kanpora eta baita asteburu eta opor nahiz jai egunetan ere (ikus ordutegia taulan). Gabaz itxita

egongo da gunea, bai astean zehar eta baita asteburuetan ere.

Irailetik abuztura bitartean, astegunetan, Herri Eskolako kontserje edo zainzaileek zabaldu eta itxiko ditu instalazioa, eta berea izango da segurtasunaren ardura. Asteburu eta jai egunetan, eta baita kontserjearen oporaldian ere, udaltzaingoa arduratuko da segurtasunaz, eta gunea zabaldu eta itxiaz. Jolas gunearen mantenu eta garbiketa gastuak Udalak hartuko ditu bere gain, eta baita erantzukizun zibileko aseguru polizaren kostua ere.

### SEGURTASUNA NEURRIA

Bestalde, haurren segurtasuna bermatzeko helburuarekin, gaur egun kirol gunearen buelta osoan dagoen itxuran dauden atetxoak behin betiko itxi edo kondenatu egingo ditu Udalak, Errekaldeko Herri Eskolako guraso elkarteak egindako eskaera aintzat hartuz.



**Almaraz**  
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444  
www.almaraz.info

**Carmelo Pérez de Almaraz**

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahil baduzu, dei diezaguzu".



**Baserriko kiwi ekologikoak goxo-goxoak**

3 tamaina (okg. kaxak):  
Haundiak 19€  
Ertainak 14€  
Txikiak 11€

IRABAN baserria • Tel.: 943 78 18 32

## GAZTELEKUKO SOTOAREN INGURUKO OHARRA

Udal Gazteria saileko arduradun politiko eta teknikoek, eta Gaztelekuko langileek Sotoaren erabileraren inguruko oharra plazaratu dute.

Sotoak 0-7 urte arteko haurrei jolaserako leku apropos bat bermatzea du helburu, eta, bide batez, helduek eta haurrek elkarrekin jolasean aritzeko garrantziaren kontzientzia sustatzea.

Tamalez, baina, askotan sotoak oihana ematen du zabalaik dagoen bitartean, eta itxi ondoren hankaz gora geratzen da dena, askotan.

Garbi dago, jokabide hauek ezin zaizkiela umeen guraso guztiei leporatu, baina ohar honen bidez dei egiten zaie sotoa erabiltzaile guztiei, bakoitzak bere esku dagoena egin dezan, gunearen erabilpen egoki baten alde, denon onerako izango baita.

# Txantxien truke bulegoak ordutegia zabaldu du

►Lehenengo hilabetean **11.247** txantxi eskuratu dituzte herritarrek ►Dagoeneko **32.028** daude zirkulazioan

Azaroarekin batera zabaldu zuen Udalak Txantxiak eskuratu ahal izateko truke bulegoa, eta hil honetan zehar zabalik egon den 16 egunetan herritarrek 10.702 euro aldatu dituzte, 11.247 txantxi eskuratuz (%5eko hobariaz baliatuta). Beste modu batera esanda, bulegoa irekita egon den eguneko 715 txantxi eskuratu dituzte herritarrek.

Honenbestez, moneta sozialaren sistemara atxikitako establezimenduek eskuratu dituzten txantxiak (8.740) eta Udalak dirulaguntza edo saritan eman dituenak (11.841) batuz, guztira 32.028 txantxi daude zirkulazioan une honetan.

Bestalde, truke bulegoaren ordutegia zabaltzea erabaki du, herritarren eskariak aintzat hartuz. Aurrerantzean ostiraletan ere zabalik egongo da eta ordutegia zabalagoa izango da, bai goizez eta baita arratsaldean ere (ikus taula).



Udaletxeko harrera gunean dago truke bulegoa

## TRUKE BULEGOAREN ORDUTEGIA

► **GOIZEZ:** Astelehen, asteazken, ostegun eta ostiraletan, 11:30-14:30

► **ARRATSALDEZ:** asteartean, 15:00-19:00

► **GABONETAKO ORDUTEGIA:**

- **ABENDUAK 24:** 09:00 - 12:00
- **ABENDUAK 25-28:** ITXITA
- **ABENDUAK 29:** 11:30-14:30
- **ABENDUAK 30:** 15:00-19:00
- **ABENDUAK 31-URTARRILAK 4:** ITXITA
- **URTARRILAK 5:** 09:00-12:00



## Aloña-Urbiako larreratze kanpaina

Datorren urteko udaberrian Aloña-Urbiak-Oltza eta Artia-Txirikilaleku-Aitzgaineneko larreetara ganadua ateratzeko asmoa duten abeltzainek **abenduaren 31** baino lehen jakinarazi behar diote Udalari mendira eramango duten ardi, bildots, ahari, behor eta behi kopurua. Epe hori igaro ondoren ez da larreratze baimen gehiago emango.

## Auzitara eraman du EAJk San Martingo Plan Partzial berria

San Martineko Plan Partzial berriaren aurkako helegite kontentziosoa jarri du EAJren udal taldeak. Gogoratu gai honek eztabaida luzea eragin zuela udal gobernua eta oposizioaren artean, aplikatu beharreko lurzoru legearen interpretazio desberdina egiten baitute. EAJren ustez, plan partzial berrian aurreikusten diren 49 etxe berrietatik 30 babes ofizialekoak izan behar dira. EH Bilduk San Martingo promotoreekin adostu du bertan eraikitzeko falta ziren merkatu libreko 83 etxeen orde, prezio tasatuko 132 egitea. Ikusi egin beharko da orain, epaileak tramitera onartzen duen ala ez.



**not+vello**®  
fotodepilación con tarifa plana

Olakua 1 Bajua  
☎ 943716713  
onati@nomasvello.com

www.nomasvello.es

**FOTODEPILAZIOA**  
Tarifa finkoa  
(30€ zehaztasun)

**IPL GAZTETZEA**  
Tarifa finkoa  
(20€ zehaztasun)

**AZALEKO GARBIKETAK**  
Ultrasonarekin tratamendu ezberdinak  
(15€tik aurrera)

**OPARI TXARTELAK**  
Eduzen tratamendu eta konbinazioak  
(30€tik aurrera)

# 30 ESKAPARATE

## zein baino zein ederrago

- Udalak 4.500 txantxi banatuko ditu Eskaparate Lehiaketako sarietan.
- Herritarren saria ere izango da

Gabonetako VII. Eskaparate lehiaketa antolatu du Udalak TXANDA elkartearekin batera, herriko merkataritza sustatzeko asmoz. Sarietan parte hartuko duten merkatariek abenduaren 7rako prest eduki beharko dituzte erakuslehiok behar bezala apainduta.

Ohi bezala, Merkataritza Ganberako ordezkariak eta dekorazio arloko profesionalak osatuko dute epaimahia.



lax Juanitosak jaso zuen lehen saria, eta Kimuk herritarrena

### SARI BERRIA: Eskaparate birtuala

Bada beritasunik aurtengo lehiaketan. Alde batetik, sari guztiak txantxitan emango ditu Udalak. Zazpi sari dira, eta danera 4.500 txantxi banatuko dira.

Sari berri bat ere emango da aurten, 'Eskaparate birtuala' izenekoa. Sistema digitalen (web orriak, sare sozialak, QR aplikazioak...) erabilera sarituko da. Marketing digitalean aditua den epaimahia erabakiko du saria.

Bestalde, ohi bezala, sarietako bat herritarren botoz erabakiko da. Horretarako, aldizkari honetako 16 eta 17 orrialdeetan dauden boto-txartelak bete eta abenduaren 18a baino lehen eraman behar dira udaletxeko harrerara, turismo bulegora, edo Sozioekonomia zerbitzura (Bidebarrieta, 12). Botoa ematen duten guztien artean gabon-saski eder bat zozketatuko da.

## ABENDUAK 6, JAI EGUN ARROTZEI INTSUMISIOA!

Konstituzioaren jai eguna salatzeke hainbat ekitaldi antolatu dituzte

Debagoieneko ERNAik eta FAN Hemendik ekimenak abenduaren 6an ospatzen den Konstituzioaren jai eguna salatzeke hainbat ekitaldi antolatu dituzte egun horretarako. Goiziko 10etan **Julen Arzuagak** hitzaldia ('Ertzaintzaren oinarriak desmontatzen') emango du gaztetxean. Ondoren (12:30) **manifestazioa** egingo dute plazan abiatuta, eta 14:00etan **herri bazkaria** egongo da. Izen-ematea herrikoetan.

IRITZIA / Jone Arrazola

## Burkaren auzia



**G**ogoratzen dut nola orain dela gutxi Gasteizko garraio publikoan, autobus gidariak, *burka* zeraman emakumeari sarrera galazi zion. Segurtasunaren izenean egin zuela eta justifikatzen saiatu arren, ihes egin zion arrazoiak: "errespetuagatik egin dut" bota zuen baldar, urduri. Eta egia esan urduri egotekoa zen, gizon honek igaro berri zuen marra *burka* bezain iluna baita.

Notiziaz nekienetik espero nuen adierazpena zen hori, egun gure gizartearen gailentzen den pentsaera izanagatik "kuri osoa" baita inor gutxi ausartzen dela berau publikoki aitortzen. Izan ere, mendebaldeko herrialdeak, Europa, Euskal Herria eta gu geu emakumeenganako indarkeriaren kontra (omen) gaude, berdintasunaren alde. Horregatik emakumeon zapalkuntzaren sinbolo den oro mundu honetatik ezabatzea da askoren helburua. Baina, ez al da hau erronka ausartegia?

Gizakiaren askatasunaren izenean historian emandako sarraskiak zenbatezina dira eta honek asaldatzen nau. Gurea ez, eta beste batena den kultura edo/eta erlijioaz ezer gutxi jakinda (begi bistan ageri zaiguna "ez besterik"), aurreiritzi etnozentrizistaz josita hitz egiteak errespetua sorrarazten dit. Ikuspuntu kolonialistaren usaina hartzen diot. Globalizazio honetan kulturak homogeneizatzeko saiakeraren itxura, finean. Konturatzen bainaiz mendebaldean kokatzen garenok gure kultura propioaz hausnartzeko, eta zer esanik ez berau aldatzeko, dugun zailtasuna izugarria dela. Eta honek ezer baino gehiago beldurtzen nau.

Honekin ez dut esan nahi askatasunaren lema tolerantziarenagatik trukatu eta honen aitzakiapean emakumeenganako zein bestelako edozein zapalkuntza zantzu onartzeko prest nagoenik. Ezezaguna zaigunari buruz iritzi bat eman baino lehen hau ezagutu, entzun eta ulertzeko saiakera mardula egin beharra dagoela diot, soilik. Bai, lana, esfortzua suposatzen du, baina aberastu ere egiten gaitu; bestea, ezezaguna (adibidez, emakume musulmana) ezagutzeak, gu edo propioa (adibidez, emakume euskalduna) zalantzan jartzera garamatza. Alta, gure izana eta ezina argitaratzen du. Funtsean, gure ohitura "natural" horien izaera "kulturalaz" oharatzen digu.

Orohar, *burkaren auzia* kulturarteko talkaren seinale garbia da. Bada izan dadila talka hau positiboa eta eraikitzailea. Baliatu dezagun une hau emakume musulmanez jakiteko, emateko eta hartzeko. Edo ez al gara gai salbatzaile/salbatu edo/eta garaile/galtzaile gabe auzi honi irtenbidea topatzeko?



**ALTUBE  
ZERBITZUAK**

Portu Kalea 5  
20560 Oñati  
Gipuzkoa



**MAPFRE**

Tel.: 943 78 12 85  
943 78 33 97  
Faxa: 943 78 07 85

**CORTABARRIA**

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

**Etxe eta lokalen gestio orokorrak**

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: [inkorta@teletel.es](mailto:inkorta@teletel.es)

enpresa ekimenak

# ALBERTO DELGADO Iturgintza eta galdara nahiz berogailuen instalazio eta konponketa lanak



Tarteka, Udaleko Enplegu zerbitzuaren laguntzarekin sortutako enpresa ekimenen berri ematen dugu orriotan. Oraingoan Alberto Delgado aurkezten dizuegu. Esperientzia luzea du Albertok iturgintza eta gas instalazioen mantenu lanetan, eta baita soldatzaile moduan ere, eta bere kontutik hasia erabaki du.

## Zer dela eta erabaki duzu zeure kontutik hasia?

Jegas enpresan ibili nintzen lanean, eta gero beste hainbat enpresetan ere, iturgintza arloan, eta baita soldadura lanak egiten ere.

Azken bi urteak etxean eman ditut ama zaintzen, eta orain, lanik ez dagoenez, neure kontura hasia erabaki dut esperientzia dudari arloan.

## Zein zerbitzu eskaintzen duzu?

Iturgintzarekin lotutako instalazio,

**ALBERTO DELGADO MARTIN**  
**688 651 256**  
**943 782 194**



konponketa eta mantenu lanak egiten ditut. Erradiadore edo berokontza instalazioak, galdarak, komun-ontziak, griferia, ur ihesak...

**Besteak beste, bainu-ontzia kendu eta dutxa platera jartzeko lanak egiten ditut, igeltseritza lanak (azulejuak) barne**

Bañera kendu eta dutxa platerak jartzeko lanak egiten ditut, igeltseritza lanak barne (azulejuak...); manparak instalatzen ditut.

Galdara, kalentadore eta termoak izoztean aurka babesteko sistemak ere jartzen ditut.

Bestalde, soldadura eta galdaragintza lanak (balkoi eta baranden konponketak...) ere egiten ditut.

## Laguntzarik jaso al duzu?

Eusko Jaurlaritzak ekintzailetasuna sustatzeko ematen duen laguntza bat lortu dut, eta, bestalde, Oñatiko udalaren laguntza tekniko eta ekonomikoa ere bai.



## OÑATIKO VII. ESKAPARATE LEHIAKETA HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

**NIRE BOTOA** eskaparate honi ematen diot:

**IZEN KOMERTZIALA:** \_\_\_\_\_

**NIRE IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA:** \_\_\_\_\_

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 18a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa), Turismo Bulegoa edo Udal Sozioekonomia zerbitzuan (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOZKETA:** Botoa ematen duten herritarren artean

**SASKI EDER BAT** zozketatuko da

.....  
**Sinadura**

## enpresa ekimenak

# FISIOTERAPIA NEUROLOGIKOA

## MIREN UGARTE MUÑOZ

- Nerbio sisteman lesioren bat duten pertsoneri zuzendutako fisioterapia da
- Etxez etxeko zerbitzua eskaintzen du Mirenek.

**E**npresa ekimenei eskaintzen diegun tarte honetan, Miren Ugartek abian jarri duen zerbitzu berria aurkezten dizuegu: Neurologian espezializatutako fisioterapia zerbitzua da; hau da, arrazoi bategatik edo bestegatik, nerbio sistema kaltetua duten eta mugitzeko arazoak dituzten pertsoneri aplikatzen zaiena. Mirenek etxez etxe eskaintzen du zerbitzua

### Zer dela eta erabaki duzu zeure kontutik hastea?

Oñatitik kanpora bizi izan naiz hainbat urtez. Madrilen egin nituen ikasketak eta, gero, han-hemenka ibili naiz lanean. Azken urteotan Erroman bizi izan naiz, eta orain Oñatira itzulita, neurologian espezializatutako fisioterapiarik ez dagoela ikusita, zerbitzu hori etxez etxe ematen hastea erabaki dut.

### Neurologian espezializatutako fisio-terapeuta zara, beraz?

Bai, Fisioterapia ikasketak egin ostean, Aita Menni ospitalean egin nituen praktikak, eta asko gustatu zitzaidan arlo hau. Gero, Madrilgo LESCER (Centro de Rehabilitación Neurológica) zentro prestigiotsuan aritu nintzen hiru urtez, eta asko ikasi nuen bertan. Garun-lesioa duten pertsonen erreabilitazio zentro ezberdinetan ere ibili naiz, eta esklerosi anizkoitza duten gaixoei ere egin dut lan ADEMGi zentroan, besteak beste.

### Zer da fisioterapia neurologikoa?

Nerbio sisteman lesioren bat duten pertsoneri aplikatzen zaien tratamendua da. Iktus bat izan duten pertsoneri, buru edo bizkarrezurreko traumatismoren bat izan dutenei, eta esklerosi anizkoitza, Parkinson edo ataxia bezalako gaitzak dituzten pertsoneri zuzenduta dago.

Pertsona hauek zailtasunak izaten dituzte modu autonomoan mugitzeko, eta fisioterapia neurologikoaren bidez lortzen da pertsona horien mugimenduak hobetzea, autonomia eta bizikaltate hobea izan dezan, bai gaixoak eta baita bere ingurukoek ere.

### Etxez-etxe emango duzu zerbitzua?

Madrilen ere hala egin nuen lan urtebetez eta oso esperientzia ona izan zen. Etxe partikular batean beharbada ez daukazu erreabilitazio zentro bateko erosotasuna, baina, bestalde, gaixoaren ingurunean eta bere eguneroko bizitzan dituen benetako behar eta zailtasunekin lan egiteko aukera ematen du. Gainera, gaixoa eta bere zaintzailea edo senideren bat joan-etorrian ibiltzea saihesten duzu.

### FISIOTERAPIA NEUROLOGIKOA

ETXEZ ETXEKO TRATAMENDUA

609 589 843 / miren.fisioterapia@gmail.com



## OÑATIKO VII. ESKAPARATE LEHIAKETA

### HERRITARREK HAUTATZEKO ORRIA

**NIRE BOTOA** eskaparate honi ematen diot:

**IZEN KOMERTZIALA:** \_\_\_\_\_

**NIRE IZEN-ABIZENAK:** \_\_\_\_\_

**TELEFONOA:** \_\_\_\_\_

Goiko datuak bete ondoren, moztu eta eraman orri hau abenduaren 18a baino lehen honako leku hauetako batera: Oñatiko Udala (harrera bulegoa), Turismo Bulegoa edo Udal Sozioekonomia zerbitzuan (Bidebarrieta 12-Behea)

**ZOKETA:** Botoa ematen duten herritarren artean

**SASKI EDER BAT** zozketatuko da

.....  
Sinadura

# OÑATIKO ARTISAUEN GABONETAKO AZOKA

**Abenduak 20, plazan 10:30-14:30**

Gure herriko bederatzi artisauren  
lana eta produktuak ezagutu eta  
erosteko aukera izango dugu

## Marije Leibar

➔ Gaztetxoentzako (neska eta mutiko) eta emakumezkoentzako kamisetak apaintzen ditu marrazkien bidez eta patchwork teknika (eskuz jositako oihal zatiak) erabiliz. Horrez gain, eraztunak eta ilerako zintak bezalako osagarriak ere egiten ditu. Ahal den neurrian, materiala birziklatu eta berrerabiltzan ahalegintzen da.



## Iñaki Jauregialtzo



➔ Zeramika lantzen du Jaltzok. Tornoz landutako piezak egiten ditu: pitxarrak, platerak, katiluak, itxulapikoak...euskal buztingintza tradizionala, hau da, txuriz esmaltatutakoa lantzen du; hala ere, buztin beltza eta gresa ere erabiltzen du piezak ekoizterakoan. Artisau elkarteko partaide da; [www.artisau.net](http://www.artisau.net) webgunean ikus daitezke bere lanak.

## Dorleta Fernandez

➔ Zaletasuna ofizio bihurtu zuen Dorletak udaberrian 43 personari josteko makina erabiltzen irakatsiz. Eta horri jarraipena eman nahi dio, talde txikietan eta pertsonen egokitutako ordutegian. Artisau azokan salgai jarriko dituen gauzak egiten irakatsiko du: poltsak, nezeserrak, karteratxoak, panpinak eramateko motxilak, merienda eramatekoak... Ikastaroei buruzko informazioa jasotzeko: [dor.joskintza@gmail.com](mailto:dor.joskintza@gmail.com)



## Ane Larreategi

➔ Oihalarekin haurrentzako baberoak, eskuohialak, mantatxoak, txupeteroak, doudouak, eta haginekin dabiltzan garairako haginka egiteko egurrezkoa osagarriak egiten ditu Anek. Mugikor, tablet eta ordenagailu eramangarrietarako zorroak ere josten ditu.



## Gemma Muñoz - Ainhua Quesada

➔ Ainhoak miyukia lantzen du. Japoniar jatorrizko koloredun harritxo txikiak dira miyukiak, eta banan banan josten dira, nahi den forma emanez (belarritakoak, kuadroak, pultserak, lepokoak, eraztunak, diademak...). Gemmak goma evazko fofucha izeneko panpinak egiten ditu. Kolore eta forma askotakoak izan daitezke. Norberaren antza dutenak ere izan daitezke. Bataio, jaunartze eta ezkontzetarako ere egiten dituzte. Horiez gain, brotzeak, poltsak, kuaderno dekoratuak, boligrafoak, arkatzak, kaxak... ere egiten dituzte.



## Lavandula xaboi eta kremak

➔ Ainara Beobide eta Ainhua Aranburuzabalak osatzen dute Lavandula. Kosmetika naturala egiten dute. Amamari ikasitako antzinako ukenduekin hasi ziren. Orain xaboi eta krema artesanalak egiten dituzte. Oparitarako kit pertsonalizatuak egiten dituzte, urtebetetze, ezkontza edo enpresentzako detaileak ere bai. Landetxetako komunitetarako xaboi txoak ere egiten dituzte, eta ikastaroak ere ematen dituzte.



## Lide Osinaga



➔ Haur eta helduentzako denetariko osagarriak egiten ditu Lidek. Mugikorretarako fundak, belarritakoak, txupeteroak, ogitartekoak eramatekoak, horkillak... Denak baina, kolorez eta irribarrez betetakoak.

## Mirari Sagarzazu

➔ Oihal gainean bere ilustrazioak eskuz margotu edo estanpatzen ditu Mirarik, margo bereziak erabiliz. Irudiaren diseinua egin eta zuzenean oihalean margotu ohi du. Beste batzuetan aldiz, zigilu eta tanpoi bat diseinatu eta taiatzten du, ilustrazioa behin baino gehiagotan estanpatu ahal izateko. Gero, beroa erabiliz marrazkia fijaszen du, garbitzerakoan mugitu ez dadin. Gehienetan kamiseta gainean egiten du lan, baina beste arropa eta euskarri batzuk ere lantzen ditu.



## Edurne Ugarte



➔ Birziklatzea eta esperimentatzea gustatzen zaio Edurneri, eta material ezberdinak erabiltzen ditu era askotako osagarri eta apaingarriak egiteko. Ikastaroak ere ematen ditu.



## ORTUZABALA Kontsumo Taldea handitu gura dute

ETEO zaharrean  
Udalak utzitako  
lokalera eramaten  
dituzte barazkiak  
Ortuzabala taldeko  
ekoizleek, eta bertan  
jasotzen dituzte  
asteroko otarrak  
taldeko  
kontsumitzaileek

Kontsumo taldeko kideek, modu ekologikoan  
landatutako barazki osatutako otarra jasotzen  
dute astero, 70€ko hileroko kuota baten truke

Ortuzabala Oñatiko Kontsumo Taldeak ekoizle berriak ditu. Ariane Telleria, Rebeka Maestro, Ane Anduaga eta Arantzazu Sagarzazuk hartu zuten baratzaren ardura udaberrian, eta Murgia auzoan duten ia 10.000 m<sup>2</sup>-ko ortuari neurria hartu ondoren, kontsumitzaile gehiagori zabaltzeko nahi diote taldea. Gaur egun 16 otar banatzen dituzte astero, eta 25era iritsi nahi lukete, lantaldearentzako gutxieneko soldata duin bat lortu eta proiektuaren iraunkortasuna bermatzeko.

Kontsumo taldeko bazkideek 70 euroko kuota ordaintzen dute hileroko, eta trukean modu ekologikoan landatutako barazki osatutako otar bat jasotzen dute astero. Otar erdia jasotzeko aukera ere badago, hilean 40 euro ordainduta.

Ekoizleek astearte arratsaldeko 17:00etan uzten dituzte barazki freskoak (ortutik jaso berriak) ETEO zaharrean, Udalak utzitako lokalean, eta kontsumitzaileak nahi dutenean pasa daitezke bertatik (bakoitzak bere giltza du) asteko otarra batzera.



Garaian garaiko barazkiak  
ekoizten dituzte modu  
ekologikoan

### HARREMAN KOMERTZIALA BAINO GEHIAGO

Inportantea da jakitea, gainera, kontsumo taldeak ez direla ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman komertzial hutsera mugatzen. Hala, bi hilean behin-edo bilerak egiten dituzte elkarrekin, eta denen artean egiten dute ortuaren planifikazioa. Gainera, noizbehinka, auzolanak ere antolatzen dituzte, adibidez patata edo kalabaza batu behar denean, edota azpiegitura lanen bat egin behar bada, eta halako kasuetan kontsumitzaileek ere laguntzen dute ahal duten neurrian.

Kontsumo taldeko kide egiteko, edo taldearen funtzionatzeko moduari buruzko informazio gehiago nahi duenak telefonoz (670566251) edo emailaz (ortuzabala@gmail.com) eska dezake inolako konpromiso barik, edo Murgian (Tokillo ondoan duten ortura hurbilduta). Ateak zabalik daude beti. Larunbateroko plazako azokan ere egoten dira.

## HARREMANETARAKO

Ortuzabala kontsumo taldeari  
buruzko informazio gehiago  
nahi izanez gero:  
670 566 251  
ortuzabala@gmail.com

## KONTSUMO TALDEAK

Nekazari eta kontsumitzaileen arteko aliantzak dira Kontsumo Taldeak. Kontsumo eredu berri bat da, ekoizle eta kontsumitzaileen arteko harreman zuzena, eta elikagaien auto-hornikuntza sustatzen dituen; hau da, bertan produzitzen duguna bertan kontsumitzea bultzatzen du, milaka kilometrorra ekoiztutako produktuak ekartzen ibili barik.

Kontsumo taldeen bidez segurtasuna ematen zaio nekazariari, hileroko diru iturri finko bat bermatuz, eta, bestalde, kontsumitzaileak badaki otarrean aurkituko dituen barazkiak bertakoak, freskoak eta osasungarriak direla.

Gertutasunean eta elkarren arteko konfiantzan oinarritzen den kontsumo eredu bat da. Kontzientzia ekologikoa eta soziala eskatzen du, lurraren osasunaren alde, geure osasunaren alde, eta nekazariari duintasunez lan egiteko aukera ematearen alde.

## Udal hauteskunderi begira prozesu partehartzailea jarri du abian EH Bilduk

Maiatzeko udal hauteskundeetarako herri programa osatzeko prozesu partehartzailea jarri du abian EH Bilduk hamar lantaldeetan antolatuta. Oinarri ideologikoak zehaztu ostean, azaroaren 15ean egin zuten lehen tailer irekia. Urtarrilaren 17a bitartean lantalde bakoitzak bere alorraren lanketa egingo du. Edozein herritarrek izango du ekarpenak egiteko aukera [oinati@ehbildu.net](mailto:oinati@ehbildu.net) helbidean. Bulego bat zabaltzeko aukera ere aztertzen ari dira.

Urtarrilean lehentasunak finkatuko dituzte arloka, eta alkategaia ere izendatuko dute. Beste hautagairik aurkezten ez bada, Mikel Biain egungo alkatea izango da zerrendaburua. Otsaila eta martxoan zehar, herri programa zehaztuko dute, herriko eragileekin

kontrastatu ostean, eta hautagai zerrenda osatuko dute, kanpaina murgiltzeko.

EH Bilduk adierazi du Euskal Herriaren burujabetza eta eraldaketa sozialean sakontzeko balio behar dutela maiatzeko hauteskunderiek. "Sinesagarriak garela frogatu dugu. Gauza on asko egin ditugu legealdi honetan, eta irekitako bidean sakontzeko herritarren babesa lortu behar dugu, kudeaketa gardena, irekia, arduratsua eta parte-hartzailea ardatz hartuta".



## Juan Zelaia omendu du NABARRALDEK

Nabarralde elkarteak Juan Zelaia oñatiarrari eman dio aurtengo Nabarralde Saria, Euskal Herriko kulturaren arlo ezberdinak (historia, hizkuntza, oroimena...) sustatzeko egin duen lana baloratu eta aitortzeko. Herri honetako proiektu asko bultzatu ditu Juan Zelaiak, isilean eta eskuzabaltasunez, eta horregatik esker ona adierazi nahi izan dio Nabarraldek, une zailetan ere herriaren alde lan egiten jarraitu duelako.

## Volkmar Gessner, Lege-Soziologia Erakundearen sortzaileetako bat hil da

Oñatiko Lege Soziologiako Nazioarteko Erakundearen (LSNE) fundatzaileetako bat izan zen Volkmar Gessner (1937-2014) alemaniarra hil zen azaroaren 8an. André Jean Arnaud eta Kiko Caballerorekin batera Gessner jauank esku hartze zuzena izan zuen aurtien 25 urte bete dituen LSNEaren sorreran. Hasieratik izan zen Oñatiko unibertsitate zaharrean ematen den Lege-Soziologiako Masterreko aholkularia eta baita irakaslea ere, eta 2003-2005 artean LSNEko zuzendari zientifikoa izan zen. Oñati asko maite zuen Gessner jaunak, eta maiz etortzen zen gure herrira lan bileretara eta baita oporretara ere; bizikleta hartu eta hemengo inguruan ikustea gustuko zuen.



M<sup>a</sup> del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea  
Tel/Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

## HARALD LINDER

ETXETAN ERA GUZTITAKO KONPONKETAK  
PERSIANAK, LEIHOAK, LUR FLUTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SERBIDOREA, HERRITARRAK ETA ASKATZ GELAKO

ORLAINA 12 B 4 esk. - 20600 ORLAINA - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

## OÑATIKO VII. BERTSOLARI TXAPELKETA

# Maidar Arregi nagusitu da lehen finalerdian

► Bigarren kanporaketa abenduaren 6an jokatu da Arrano elkartearen, eta finala 20an, Gaztelekuan

### 1. FINALERDIKO PUNTUAZIOA

|                       |        |
|-----------------------|--------|
| Maidar Arregi .....   | 188,25 |
| Andoni Goitia.....    | 180,75 |
| Egoitz Aizpuru.....   | 177,50 |
| Urko Egaña.....       | 175,25 |
| Iñaki Olalde.....     | 170    |
| Ander Lizarralde..... | 157    |

**M**aidar Arregi, egungo txapelduna, nagusitu zen Oñatiko VII. Bertsolari Txapelketako lehen finalerdian, eta horrenbestez bera da aurreneko finalista. Kanporaketa saio bakoitzeko irabazleak eta puntuazio altuena lortzen duten lau bertsolariak sartuko dira finalean.

Aurreneko finalerdia Antixena gaztetxean jokatu zen, giro ederrean eta oso ondo antolatuta. Lehiakideek seina bertso puntuagarri abestu behar izan zituzten: ofizioa hiruna bertso zortziko handian eta txikian, lau oinak emanda bertso bat, eta kartzelako lanean puntuari erantzunez eta gaia emanda bertso bana. Lan txukuna egin zuten guztiek, baina Maidar eta Andoni nabarmendu ziren. Hona hemen, adibidez, lau oinak emanda (*apurua, burua, dirua, segurua*) Maidarrek osatu zuen bertsoa: “*Gure funtsa ez al da/bihurru dirua/nahi dugulako bizi/ oso segurua/ Batzuen zoriona/besten apurua/ baina maiz galtzen dugu/horrek burua*”. Gai jartzaileak emandako puntuari erantzunez (“*Ez dugu beti izaten gustuko bisita*”) bertso hau borobildu zuen Andonik: “*Sarritan gogoz kontra egin behar zita /baina bizitza nola doan ikusita/ eskua eman behar begiak itxita*”.



Bigarren finalerdiko puntuazioak erabakiko du zein bost bertsolari izango dituen lagun finalean Maidarrek. Aurretik, baina, badu beste hitzordu garrantzitsu bat Maidarrek berak, bertsolari gazteentzako Xenpelar lehiaketako finalean izango baita abenduaren 8an, Erretereria Hiria kulturgunean, 17:00etan.

## ‘Oñatiko hitzen altxorra’

► Gure herriko bertsolaritzaren historia idatzi du Urko Egañak

XIX. mende bukaeratik gaur egun arte bertsolaritzak Oñatin eman duena jaso du Urko Egaña bertsolariak ‘Oñatiko hitzen altxorra’ izeneko liburuan. Graziano Anduaga ‘Gesaltzako aitona’ren bertsoekin hasi eta azken 130 bat urteetan bertsolaritzaren inguruan gure herrian izan diren bertsolariak, bertsoaldi gogoangarriak, txapelketak eta bestelako gertaera eta bitxikeri edo pasadizo nagusiak bildu ditu Egañak ia 300 orrialdeko liburuan.

Bi urteko lanaren emaitza da. Bi urte hauetan zehar, Oñatiko bertsolari eta bertsozale baterano asko elkarrizketatu ditu Egañak, eta baita Imanol Lazkano ere, Oñatirekin eta, bereziki, Larrain Gain elkarrearekin hain lotura estua izan zuten bertsolari azpeitiarren ordezkari gisa. Udal artxiboan eta Xenpelar dokumentazio zentroan ere arakatu du Egañak, eta informazio horrekin guztia osatu du liburua, herritarren eta, batez ere, bertsozaleen gozagarri. Bertso eder asko eta argazki ugariz osatu du lana, dokumentu interesgarri eta irakurterreza borobilduz. Hilaren 16an aurkeztuko du kultur etxean (18:00), Andoni Egaña (hitzaurrea idatzi du) bertan dela. Bestelako sorpresarik ere izango omen da aurkezpenean.

**Abenduaren 16an aurkeztuko du kultur etxean, 18:00**



Urko Egaña



Goian, Jesus Igartua bertsotan Garaio aretoan, Oñatiko lehen bertsolari txapelketan, 19xxean, Jaimen Agirre ondoan duela. Ezkerrean, Graziano Anduaga ‘Gesaltzako aitona’





Izena: **Asier Murguzur**

Ogibidea: **Langilea**

#### Zer da bizikleta zuretzat?

Egunero erabiltzen duzun tresna bat lanera joateko, pasiatzeko, aisialdirako eta kirola egiteko.

#### Zergatik eta zertarako erabiltzen duzu?

Erosoa delako eta osasungarria. Egunero egiten ditugun bidaia gehienak (lanera, kiroldegira, kultur etxera, erosketak egitera...) motzak dira, eta, beraz, bizikleta oso egokia da desplazamendu horiek egiteko.

#### Ze abantaila ikusten dizkiozu?

Erosotasuna, aparkatzeko arazorik ez, azkarra bidai laburretarako, osasungarria, kirola egiten duzu... Gainera, kotxerik erabiltzen ez duzunez, dirua aurrezten duzu eta ez duzu kutsatzen.

#### Zer egingo zenuke bizikletaren erabilera sustatzeko?

Urrats erraldoia izan da bidegorria egitea, luzatzea eta egokitzea. Lanera bizikletan bezaalako ekimenak ere oso lagungarriak dira.

#### Nola ikusten duzu etorkizuna?

Oso ondo. Goian aipatutako onurak denon onerako direlako. Berlinen izan gara aurten eta bizikletaz ibili gara hiriburuan zehar eta gusto ederra izan da.

Abenduak 10, (19:00) Kultur Etxean

## Oñati eta bizikleta mahaingurua

Datorren abenduaren 10ean mahai-inguru bat egingo dugu. Oñatin bizikletan ibiltze-ari buruz izango da hitzaldia eta bertan bizikleta erabili ohi duten hainbat herritarrek parte hartuko dute. Herrian bizikletan ibiltzeak dakartzan onurak, bizikletan ibiltzeko dauden arazoak, azken urteetan izandako aldaketak... Juanjo Sagarzazu, Marijo Eros-tarbe eta Esteban Irusta izango dira mahai-inguruan parte hartuko duten herritarrak, baina gaiarekin interesa daukan edonork parte hartu ahal izango du.

Animatu eta etorri!



Txirinka

Mahainguruko kartela..



Gogoeta  
**Gure kaleak**

Zertan bihurtu dira gaur egun-gore hiri eta herrietako kaleak?

Oinezko eta txirrindularientzat, asfalto eta metalezko makinez beteriko oihan arriskutsu beza-la ikusten dute batzuek. Beste batzuk berriz, irriparez gogoratzen dute kalean jolastea arrisku bat ez zireneko garai horiek.

Agian iritsi zaigu gai honen inguruan gogoeta sakon bat egiteko garaia.

Bitartean, berreskura deza-gun gure espazioa!!!



• GALDARAGINTZA - CALDERERIA  
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

[www.caravanasonate.com](http://www.caravanasonate.com)

• BIZIKLETAK  
• ERREMOLKEAK  
• TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK  
Oñateko zuhaitzia, 25 • Tel.: 943 78 05 65  
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

# Segurtasuna eta kalitatea helburu

**Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mendi Federazioak lurraldeko eskalada-eskolak berrekipatzeko plana jarri dute abian**

**Ion Agirre oñatiarrak parte hartu du ekipatze lanetan**

Gipuzkoan dauden aire libreko 25 eskalda eskoletako berrekipamendu plana abian jarri dute Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Mendi Federazioak. Bizpahiru urtetan zehar burutu nahi den egitasmoa da. Aurten, herrialdean dauden eskalada-bide guztien (milatik gora daude) %26 berrekipatu dituzte, besteak beste Oñatiko Araotz eta Atxuri eskoletako hainbat bide. Ekipatze lanek 100.000 euroko aurrekontua dute (materiala, erremintak, eskulana eta panel informatiboak barne) eta Aldundiko Kirol departamentuak hartu du bere gain. Mendi Federazioak bereziki eskertu nahi du tokian tokiko eskalatzaileen aldetik jasotako laguntza.

## **DIAGNOSTIKOA ETA PLANA**

Orain dela bi urte hasitako egitasmoa da hau. Diputazioak eskatuta, Gipuzkoako Mendi Federazioak lurraldeko eskalada-eskolen egoeraren diagnostikoa egin zuen. Aurrena, azterketa edo ebaluazio orokorra egin zen 2012an, tokian tokiko eskalatzaileek eta teknikoek emandako informazioari esker. Ondoren, Mendi Federazioak lau teknikarik bertatik bertara ikuskatu zituzten eskola guztiak, lehenetasunak finkatu eta gabezia handienak dituzten eskalada bideen berrekipamendu plan bat proposatuz.

Aldundiak ontzat eman zuen egitasmoa eta, hala, lau ekipatzaile kontratatuta, Gipuzkoako eskalada-bideen %30 berrekipatzeko lanak burutu dira aurtengo uztaila eta azaroa bitartean. Asmoa da hurrengo urteetan berritze lanekin jarraitzea eta, gainera, etorkizunera begira aldizkako mantenu plan bat finkatzea, eskalada-eskolen zenzo edo errolda bat osatuz.

## **ESKALADA ESKOLAK**

Kirol hau praktikatzen duen eskalatzaile talde gero eta zabalagoari segurtasuna eta kalitatea eskaintzea da egitasmo

**Gipuzkoan dauden eskalada-bide guztien (milatik gora daude) %26 berrekipatu dituzte aurtengo ekinaldian**



**ANKLAJE BERRIAK**  
Herdoildu eta gastatutako ainguralekuak kendu eta berriak jarri dituzte, erretxina bidezko ainguraketa sistema berri batekin.

honen helburua. Kontuan izan behar da, mendi inguruetan dauden eskalada eskola hauek modu espontaneoan sortzen direla, eskalatzaile anonimoen borondatea eta lanari esker. Eskalatzaileek jarritako azpiegiturak dira (materiala berain poltsikotik ordainduta gehienetan) edozein herritarren eskura daudenak.

Eskalada-bide hauen mantenu edo berrekipamendu lanak egiten dira tarteka, (eskalatzaileen ekimenez gehienetan), baina ez administrazioak programatutako plan baten barruan, kiroldegietako rokodromoekin egiten den moduan. Administrazioaren ekimenez egindako azken aktuzio inportantea 1990-91n izan zen; diputazioak mendi federazioari emandako laguntza bati esker, orduan zeuden 14 eskoletatik 7 berrekipatu zituzten.

Orduz geroztik ere egin izan dira hobekuntza lanak han-hemenka mendi federazioak edo tokian tokiko Udalek emandako laguntzei esker, baina ez da plan edo programa orokorrik egin.

### BERREKIPATZE LANAK

Eskalada-bideen berritze lanetan jardun duten lau ekipatzaileetako bat Jon Agirre oñatiarra izan da, eta berak azaldu digu zein lan egin duten. "Herdoilduta eta gastatuta zeuden anklaje edo ainguralekuak kendu eta berriak jarri ditugu, altzairu herdoilgaitzekoak, erretxina bidezko ainguraketa sistema batekin. Seguruagoa da, eta iraupen handiagoa du".

Araotzen, konkretuki, hamar gune edo sektoretan banatuta dauden 400 bideetatik 32 berrekipatu dituzte, eta Arantzazu auzoko Atxuri gunean dauden 45 bideetatik 16.

Kasu bakan batzuetan, eskalada-bideak desekipatu ere egin dituzte, lonek azaldu digunez. "Foru Aldundiko Ingurumen departamentuak egindako azterketaren arabera, mehatxatuta dauden hegaztien kumatze inguruneetatik oso gertu zeuden eskalada-bideak dira; Aiako Harriko parke naturaleko 'Txurumurru' gunea eta Araotzeko Gailur Goikoa izeneko gunea desekipatu ditugu".

Bideak berrekipatzeaz gain, panel informatibo berriak ere jarriko dituzte eskalada eskoletan, eta, gainera, tokian tokiko Udalak eskalada guneetako sarbideak (parkinak, bidexkak...) garbi mantentzeko konpromisoa hartu dute bere gain.

Bestalde, GMFak e-posta helbide bat zabaldu du bere webgunean ([www.gmf-fgm.org/Eskalada-eskolak-hutsetarako-buzoia](http://www.gmf-fgm.org/Eskalada-eskolak-hutsetarako-buzoia)) eskalatzaileek detektatzen dituzten gabezien (hondatutako anklajeak, harkaitz ezegonkorrak...) berri emateko.



### ARAOTZEKO ESKALADA ESKOLA

Araotzen 10 sektoretan banatuta dauden 400 bideetatik 32 berrekipatu dituzte: 11 'Korea' izeneko gunean, 6 'Pottorrosin'-en, 4 'Seriedad'-en, 6 'Dolu Haitz'-en eta 5 'Antosiña'-n.



43 neska-mutiko dabilta eskalada eskolan

### ESKALADA ESKOLA

Duela bi urte jarri zuten martxan Jon Agirrek eta Ruper Ayalak Oñatiko Eskalada Eskola, hainbat gazte eta gurasoren eskariari erantzunez. Uda Kirol Kanpainan gazte askok hautatzen dute eskolara, baina gero, urtean zehar, ez zuten ikasten jarraitzeko aukerarik. Hutsune horri erantzuteko jarri zuten martxan eskalada eskola 2012an, eta oso erantzun onarekin gainera. Aurten, esaterako, 43 neska-mutil ari dira, 6 eta 14 urte artekoak. Astean bi orduko saio bat egiten dute. zortzi urtera arte, jolasaren bidez hurbiltzen dira eskaladara; hortik aurrera, gauza teknikoagoak ikasten hasten dira (beraien artean aseguratzen...)



# Ziklokros proba aurten Urrutxun

## ORDUTEGIA

|              |                                                      |
|--------------|------------------------------------------------------|
| <b>10:00</b> | Kadete mutilak eta neskak                            |
| <b>11:00</b> | Junior mutilak eta Junior nahiz Elite mailako neskak |
| <b>12:00</b> | Master 30, 40, 50 eta 60                             |
| <b>13:00</b> | Elite eta Sub-23 mutilak                             |

► Abenduaren 21ean jokatu da Oñatiko V. Ziklokrosa ibilbide berrian

Zirkuito berria. Horixe izango da aurtengo Oñatiko ziklo kros probako berritasuna. Orain artekoak San Martin inguruan jokatu izan dira, baina bertako zuhaiztia nahikoa hondatuta geratzen zen euri eta lokatz egunetan, eta, beraz, Aloña Mendiko txirrindularitza sailakibilbide berria prestatu behar izan du.

Eta goiko planoan ikusten den moduan, Urrutxu inguruan jokatu da aurtengo ziklo krosa. Antolatzaileek 2.500 metroko zirkuitoa prestatu dute Urrutxu, San Bartolome eta Goribar Goitiko lursailetan.

Hain zuzen ere, Goribar Goitiko aldean dago zirkuitoko punturik gogorrena, desnibel handi samarra baitago bertan, eta, seguruenek, bizikleta bizkar gainean dutela pasa beharko dute gehienek. Gainerakoan ibilbidea nahikoa laua da, baina euria egiten badu eta lokazten bada, gogorra izango da.



Xabi Aiastui iazko Oñatiko proban

## Xabier Aiastuirentzat lehen podiuma

Zazpi txirrindulari ditu aurten Arrikruz-Aloña Mendi ziklo kros taldeak: Kadete maila Ander Gartzia, eta Junior mailan Julen Umerez, Xabi Murgiondo, Ekaitz Txintxurreta, Andoni Igartua, Beñat Ormaetxea eta Xabi Aiastui.

Lan zaila dute aurten, gehienak lehen urteko Juniorrak direlako. Hala ere lan txukuna egiten ari dira, eta, azaroaren 23an Berrizen jokaturako proban Xabi Aiastui 3. sailkatu zen. Bestalde, Julen Umerez 5. sailkatu zen Gipuzkoako selekzioa ordezkatzuz Arzujanx hirian (Frantzia) jokaturako nazioarte mailako proban. Oñatin ere saiatuko dira aurrean ibiltzen zaleen laguntzarekin.



[www.etxeaundi.com](http://www.etxeaundi.com)



# Oñatiko KIROL SARIAK 2014

Aurten ere Oñatiko Kirol Sariak emango ditu Udalak, urtean zehar nabarmendu diren kirolarien, eta kirolaren inguruan lan egiten duten eragile teknikari eta laguntzaileen lana aitortzeko. Abenduaren 19an izango da sari-emate ekitaldia udaletxeko areto nagusian, 19:00etan.

## HERRITARREN SARIA

Iaz bezala aurten ere herritarrek urteko kirolaririk onena hautatzeko aukera izango dute, epaimahaiak proposatzen dituen hautagariaren artean. Abenduaren 3tik 18ra egongo da botoak emateko aukera udalaren webgunean ([www.oinati.eu](http://www.oinati.eu)). Botoa ematen dutenen artean bi lagunentzako afaria zozkatuko da.



Angel Mari Milikua (Artaso taldea) eta Esteban Kerejeta eskultoreek egin dituzte aurtengo sariak

## ■ MENDI IRTEERA / ABENDUAK 21

### GR-121 ZUMAIA-DEBA

Urtea borobiltzeko Zumaia eta Deba arteko irteera antolatu du Aloña Mendiko Mendi sailak abenduaren 21erako. Gipuzkoari bira ematen dion GR-121 ibilbidearen laugarren etapa da. Denbora guztian kostaldearen gainetik doa, hain famatua den flich-a ikusten. Luzeera: 14 km. Desnibela: 650 m. Bost ordutan egiteko ibilaldia, zailtasunik gabe. Bukaera bazkaria egingo dute Deban, urteari bukaera egokia emateko.

- **IZENA EMATEA**  
abenduaren 18a baino lehen.

- **PREZIOA**  
Bazkideak 10€  
Ez- bazkideak 13€  
Langabetuak 5€.



## Hiru domina Irungo krosean

Aloña Mendi ko Atletismo sailak hiru domina lortu zituen denboraldiko lehenengo krosean, Irunen. Sergio Gartzia hirugarren helmugaratu zen senior mailan, eta beste horrenbeste egin zuen Mikel Ugartek promesa mailan. Azpimarratzekoa Sara Gomezek lortutako laugarren postua junior mailan. Bestalde, Yeray varelak Azkoitiako Herri krosa (10km.) irabazi zuen 31:35 denborarekin.

## Oñatiarrak Donostiako maratoian

Sei oñatiarrek amaitu zuten azaroaren 30eko Donostiako maratoia. Ritxar Fernandez (2:40:11), Axier Larral (3:01:50), Iñigo Zabaleta (3:25:37), Iban Guridi (3:30:16), Ignacio Bolivar (3:33:40) eta Joseba Azkarate (3:43:44). Azpimarratzekoa, bestalde, egun berean jokatu zen maratoi erdiko proban Miren Josune Bikuña (1:32:51) izan zela azkarrena V40 mailan.

## ■ KIROLDEGIKO BERRIAK

### EKINTZA OSAGARRIAK ZUBIKOAN

- **TEKNIKA OSASUNTUEN TAILERRA** / ABENDUAK 12  
GAH (Gimnasia abdominal hipopresiboa) eta SGA (stretching global aktibo) teknikak lantzeko tailerra.
- **GABONETAKO FITNESS JAIA** / ABENDUAK 19  
Fit Bike Tono, Zhunba eta Body Balance saioak egingo dira

### ESKOLA KIROLA

- **LARUNBATEKO JARDUERAK**  
Lehen Hezkuntzako 3-4 mailetako neska-mutikoei Atletismo saio berezia izango dute Arrasateko pistan abenduaren 13an. Antolakuntzak jarriko du joan-etorrirako autobusa. Bestalde, abenduaren 20an Igeriketa saioa izango dute Zubikoan. Oporretatik bueltan, urtariraren 10erako dago programatuta urteko lehen jardunaldia.

- **ASTEGUNETAKO KIROL SAIOAK**  
Abenduaren 18an egingo da urteko azken saioa, eta urtariraren 7an urte berriko lehenengoa.

- **MENDI PROGRAMA**  
Nagusiek (LH 5-6 eta DBH) Pasai Donibane-Hondarribia ibilaldia egingo dute abenduaren 14an. Txikiek (LH 3-4) abenduaren 21ean izango dute irteera Aitzabal aldera

### UR EKINTZAK ETA IGERIKETA IKASTAROA

Abenduaren 21ean izango da urteko azken saioa, eta urtariraren 7an urte berriko lehena.

### GABONETAKO EKINTZAK

- **UR JOLASAK**  
Abenduaren 29-30ean (10:30-12:30 / 16:30-18:30)
- **FUTBITO ETA SASKIBALOI TXAPELKETA**  
Abenduaren 26-27an futbito txapelketa.  
Abenduaren 30-31n kuadrilen arteko saskibaloia txapelketa



- ♦ Gosari eta hamarretakoak
- ♦ Eguneko menuak
- ♦ Aste bukaerako menu bereziak
- ♦ Plater konbinatuak
- ♦ Karta
- ♦ Razioak
- ♦ Era guztietako bokadilloak
- ♦ Hamburgesak

## Ganbara Abesbatzaren 20. urteurrena borobiltzeko



# CARMINA BURANA

## Abenduaren 28an abestuko dute Carl Orff-en obra ezaguna

Oñatiko Ganbara Abesbatzak hogeiei urte bete ditu aurten, eta ospakizunei amaiera emateko Carl Orff-en 'Carmina Burana' kantata ezaguna abestuko du abenduaren 28an (Zubikoa pilotalekuan, 19:30) Aitor Biainen zuzendaritzapean.

Obra oso entzutetsua da 'Carmina Burana'. Musika ikusgarria eta indartsua du. Perkusioak indar handia ematen dio eta, horregatik, Ganbara Abesbatzak beste ahots batzuen laguntza izango du okasio berezi honetarako; alde batetik Ganbarako kide izandako zenbait abeslari ohi batuko zaizkio, eta Bergarako Orfeoiko eta Arrasateko Goikobalu abesbatzako errefortzu batzuk ere izango dituzte, 75 lagunekin abesbatza osatzeko. Haurren ahotsa duen pasarteetan Ganbara Txikiko 30 kidek abestuko dute.

Bakarleri gisa hiru gazte promesa ariko dira (Klara Mendizabal, Xabier Anduaga eta Fernando Boto), eta alde instrumentalean bi pianujole (Eli Mendiaraiz eta Arantzazu Saiz) eta Gipuzkoa osoko zazpi perkusionista ariko dira. Erronka berezia da, Ganbarakoek *a capella* abestu ohi dutelako gehienetan, baina, dagoeneko hiru hilabete daramate entsaiotan, eta ziur gaude ikuskizun ederra eskainiko dutela 20. urteurrena borobiltzeko.

### URTE BEREZIA

Gogoratu, hogeiei urte betetzen dituen honetan Ganbara Abesbatzak kantu koraleko estatuko sari nagusia irabazi zuela Ejean (Zaragoza) eta 'Amaraun' CDa kaleratu duela, bi hamarkada hauetako erakusgarri edo islada diren 17 abestirekin.

### PARTAIDEAK

- Ganbara Abesbatza
- Ganbara Txiki Abesbatza
- Piano I: Eli Mendiaraiz
- Piano II: Arantzazu Saiz
- Tinbalak: Pablo García
- Perkusioa:
  - Jon Pache
  - Iñaki Letamendia
  - Iraide Ansorena
  - Ander Zulaika
  - Beñat Ralla
  - Nora Indakoetxea
- Bakarleriak:
  - Klara Mendizabal, *sopranoa*
  - Xabier Anduaga, *tenorea*
  - Fernando Boto, *baritonoa*
- Zuzendaria:
  - Aitor Biain Bidarte

### SARRERAK

Txokolateixan salgai (12€)

### ERDI AROKO POEMA PROFANOAK

Carl Orff (1895-1982) musikagile alemaniarrek 1936 inguruan konposatutako kantata eszenikoa da Carmina Burana. Musika indartsua eta melodia ezagunak ditu, batez ere obraren hasieran eta amaieran abesten den *O Fortuna* zatia.

Hain ezaguna ez dena, testuen esanahia da. Carmina Burana obra XI-XII. mende-etan zehar idatzitako poema batzuetan dago oinarrituta.

Poema profanoak dira, munduko plazerez dihardutenak. Maitasuna, haragiaren plazerra, sabelkeria eta taberna giroa, gurtzen dira, eta mandatari zibill eta erlijiosoen kritika satirikoa egiten da. Garai hartan ohikoak ziren erlijio kutsuko literatur lanetatik aldentuz,



**BATUAK S.A.**

**MEKANIZATU ETA KONPONKETAK OROKORREAN**  
**TORNO ETA FRESADORAK, ZENBAKIZKO KONTROLA**

Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)  
 Tfonoa: 943 78 11 15 • Faxa: 943 71 82 50



**TABERNA • JATETXEA**

Bidebarrieta 6  
 Tel.: 943 71 62 96  
 20560 OÑATI



**FAGOR**

INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOIA



## OÑATI ABESBATZAREN Gabonetako kontzertua

**Abenduak 20**  
**Agustinoen**  
**elizan (20:15)**

Urteroko ohiturari eutsiz, Gabonetako giroan murgiltzeko kontzertua eskainiko du Oñati Abesbatzak hilaren 20an. Eguberri giroko kantak abestuko dituzte: *Atozte kristauak* (J. Reading), *Bi gabon kanta* (Aita Madina), *Haurtxo txiki ta eder hori* (P. Aranaz/IL.Mallea) *Gabon gabian* (A. Madina), *A joyfull Alleluia!* (Gordon Young), *Irten ezazu* (Peñafloridako kontea), *A las doce de la noche* (J.L. Blasco), *No la debemos dormir* (Upsalako kantutegia), *Cantique de Noël* (A. Adam-Paulo Anduaga) eta *Gauerdian* (V. Goikoetxea). Amaia Azpiazu eta Oihana Diaz izango dira bakarlariak. Zuzendaria, Loli Ordoki

## ‘HOTS LARRETAN’

Hotsez, erritmoz, musikaz eta dantzaz osatutako ikuskizuna

**ABENDUAK 19, SANTA ANA, 22:30 (Sarrera: 10€)**

Euskal musika herrikoiaren arloan erreferente inportanteenetakoa den Juan Mari Beltranen azken lanaz goatzeko aukera izango dugu abenduaren 19an. Durangoko azokan plazaratuko duen izen bereko diskoan oinarritutako ikuskizuna da. Donostiako Musika Hamabostaldian estreinatzen eta, orain, Santa Ana antzokian bertatik bertara ikusteko aukera izango dugu.



**Kukai taldeko dantzarien koreografiak eta Andoni Salameroren poesiek osatzen dute ikuskizuna**

Hotsak, doinuak, dantza eta poesia uztartzen dituen ikuskizuna da; musika eta hitzen arteko topaketa, gure inguruetako natura eta paisaia, gure herrietako ospakizun, festa eta jolasetan barrena murgilaraziko gaituena.

Biolontxeloaren hots barnerakoa, adarren deialdi sakonak, txorien kanta bezalako xirularen txioak, erritmoa

markatzen duten danbolina eta ttuntuna, txalaparta makilen eta akordeoiaren botoein saltoak, albokaren harrabotsa, txistua, klarineta eta dultzaina doinuak entzungo ditugu, Kukai taldeko dantzarien koreografia ederrez osatua, eta Andoni Salameroren olerkiez harikatua. Hotsez, erritmoz, musikaz, dantzaz eta poesiaz osatutako sinfonia ederra. Sarrerak salgai: [www.bibe.me](http://www.bibe.me)



## ‘DONOSTIA-2016’ Oñatira ere iritsiko da

Europako kultur-hiriburua izango da Donostia 2016an, eta, besteak beste ‘EMUSik’ jaialdia ospatuko da, Europako 26 herrialde ezberdinetatik etorriko diren 10.000 musikari gazteen partehartzearekin, 2016ko maiatzaren 6 eta 7an. Hasiera eta amaiera ekitaldiak Donostian izango dira, baina horretaz aparte hainbat eta hainbat emanaldi izango dira Euskal Herriko hainbat herritan.

Horietako bi emanaldi Oñatin izango dira, Donostia eta Oñatiko musika eskolek eta Udalak sinatu duten lankidetzaz hitzarmenari esker. Oñatiko emanaldietan 200 -300bat musikari gazte europarrek parte hartuko dute, Oñatiko musika eskolako ikasleekin eta parte hartu nahi duten herriko beste musikari guztiekin batera.

Nerea Zubia udaleko kultura zinegotziak eta musika eskolako arduradunek oso interesgarritzat jo dute ekimena, herrialde eta kultura ezberdinetako herritarrek elkartzeko aukera emango duelako musikaren bidez. Denbora asko falta da oraindik, baina dagoeneko lanean hasi beharra dago halako ekimen bat behar bezala antolatu ahal izateko. Azaroaren 17an sinatu zuten lankidetzaz hitzarmena.



**Musika Eskolako ordezkaritza Arrasateko Akordeoi Jaialdian**

Jose de Azpiazu musika eskolak aurten ere izango du ordezkaritza Arrasaten abenduaren 5etik 8ra ospatuko den Akordeoi Jaialdi entzutetsuan. Oihane Lazkanoiturburuk parte hartuko du ‘C’ mailan. Lehenago ere parte hartu izan du Oihanek Arrasateko jaialdian, urrezko domina eskuratuz. argazkian dago bera Arantzazu Bikuña irakaslearekin.

# ABENDUKO AGENDA

## ■ ANTZERKIA

abenduak

20

## 'Novedades en Villa Titiritaina'

**PAKE LEKUKOEN 10. ANTZEZLANA**

Pake Lekuko IKUSI MAKUSI taldeak antzezlan berria taularatuko du abenduaren 20an. 'Novedades en Villa Titiritaina' du izenburua, Axun Arzuaga taldeko zuzendariak berak idatzita. Iazko obraren jarraipena da. Beraien artean oso ezberdinak diren adineko sei pertsona bizi dira Villa Titiritainan, eta eurentako bik guraso izan nahi dutela erabakiko dute. Umeak adoptatzeko ahaleginean, mafia baten atzaparretan eroriko dira, eta hilabete gutxi bi haur txikiren orde, 14 urteko bi mutiko pakistandar iritsiko zaizkie etxera. Horrek, jakina, zalaparta ugari eragingo du Villa Titiritainako bizilagunen artean. **Santa Ana aretoa, 22:00**



**Sarrerak Pake Lekun jarriko dira salgai abenduaren 15,16 eta 17an**

abenduak

7

## KONTZERTUA PAKO TABERNAN MIKEL URAKEN

Tradizioa eta berrikuntza uztartzen dituen kantautore bilbotarraren kontzertu honetan, folk eta country doinuak entzungo ditugu. **Igandea, 22:30.**



abenduak

28

## KONTZERTUA PAKO TABERNAN SCREAMERS & SINNERS

Arrasate-Aretxabaletako psychobilly taldea. Punka, rock and rolla, country... estiloetako energiak batu eta izugarritzko kontzertuak eskaintzen ditu. **Igandea, 22:00**



## OÑATIKO INAUTERIAK

Otsailaren 14an ospatuko ditugu datorren urteko inauteriak, herriko kaleak kolorez eta umorez alaituz. Egunean bertan egingo diren dantzak ikasteko entseguak asteazkenetan (20:00) eta larunbatetan (12:00) izango dira, Oñatz dantza taldearen Errekaldeko lokalean. Lehenengoa abenduaren 10ean. Gogoratu, 16 urtetik (1999an jaioetakoak) gorakoek soilik parte hartu dezaketela. Bestalde, dantza egin nahi ez duenak badauka aukera pertsonai bezala parte hartzeko. Beraz, animatu eta parte hartu!



### Ikastaroa: Puntua eta Gantxilloa

Conchi Morenok puntua eta gantxilloa lantzeko ikastaroak ematen ditu. Asteroko ikastaroak arratsaldetan ordu eta erdi. Informazioa eta izen-ematea: 645499235 / lanatalanmoreno@gmail.com / Facebook:lanatalan

**ANE MERTZERIA**

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

**Cartonajes Arregui, S.A.**

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09  
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI

## PAILAZO IKUSKIZUNAK

### 'Txipli txapla'

**abenduak 13** Urgain-Errekalde Eskolako gurasoen elkarteak antolatuta,


Tomax eta bere lagun berria den Muxugorri pailazoan abentura berria (Txipli txapla), 4 urtetik gorako herriko haur guztientzat, Zuazola institutoko aretoan, 17:30etan.. Sarrea, 3€ aldeztatik erostia, 4€ takillan.



### Poxpolo ta konpainia

**abenduak 27** Udaleko Kultura sailak antolatuta, Poxpolo eta Konpainia taldearen

ikuskitun berria. Esketx dibertigarri, magia eta musikaz osatutako ordu bete inguruko emanaldi berria. Bi emanaldi izango dira. Santa Ana aretoan. Sarrerak: www.bibe.me



### 'MATTIN BASOKO GIDARIA' Jabier Erostarberen komikia herriko liburudendetan salgai



Herriko liburudendetan eta turismo bulegoan dago salgai 12€-tan

Jabier Erostarbe diseinugile eta ilustratzaile oñatiarraren 'Mattin, basoko gidaria' komikia herriko liburudendetan dago salgai 12 eurotan. Hasieran, formato digitalan argitaratu zuen Erostarbek, euskaraz eta ingelesez (*Mattin, the forest guide*) Amazon eta Kobobooks plataformetan. Orain, Udalaren dirulaguntza bati esker, paperean argitaratzea erabaki du.

II. Mundu Gerran kokatuta dago istorioa, Zuberoan. Naziek espioitzan dabilen aliatuen hegazkin bat lurreratzeko dute, eta Mattin izeneko artzain gazteak mugaz bestaldera pasatzen lagunduko dio pilotuari, On Txarles herriko apaiz mugalariaren laguntzarekin.

## TXANTXIKU IKASTOLAREN KULTUR HAMABOSTALDIA

### EUSKAL JOLASAK

**abenduak 12 (17:00, plazan)**

KULKIren eskutik 'Itsasoko jolas parkean' jolasteko aukera. (Euria egingo balu, azoka gunean)

### BAKARRIZKETA

**abenduak 14, (19:00, Santa Ana)**

Zuhaitz Gurrutxagaren eskutik 'Futbolista baten konfidentziak' bakarrikzeta saioa.



### DOKUMENTALA

**abenduak 17 (18:30, kultur etxean)**

'Euskal Herriko altxorretan barrena' dokumentalaren emanaldia kultur etxeko zine aretoan. Arkaitz Astiazaren egileak egingo dio sarrera.

**BESTE BATZUK.** Ikastolako ikasle eta gurasoei zuzendutako beste hainbat ekitaldi ere antolatuko dituzte abenduan zehar. Besteak beste, Jon Odriozola, Alex Txikon eta Jasone Osororen bisita izango dute. Birziklapen tailerra ere antolatuko dute, eta auzolan natur artistikoak ere egingo dituzte.

## ELKARTASUN AZOKA - abenduak 13

### Elkar Hezi ikastetxearen eskutik

Urteroko ohiturari eutsiz, Elkartasun Azoka antolatuko du aruten ere Elkar Hezi ikastetxeak herriko plazan. Hilaren 13an izango da, goiz osoan zehar. Gobernu kanpoko erakundeen lana ezagutu eta bidezko merkataritza produktuak erosteko aukera egongo da besteak beste.

## GAZTETXEAN ABENDUAN

### KONTZERTUA - Abenduak 5

Perlak (Zarautz) eta Borrokan (Bera) taldeen kontzertua 22:00etan hasita.

### MUSIKA ETA POESIA - Abenduak 12

Arrasateko Ain\_1 taldeak 'Badoa, Badirau' lana aurkeztuko du, musika eta poesia uztartuz. Gaueko 22:00etan hasita

### PRESOEKIKO ELKARTASUNA - Abenduak 20

Euskal presoekiko elkartasun kontzertua egingo dute.

### 'GRUNGE DEATH' ASTEBURUA - Abenduak 26-27

Nirvana edo Alice in Chains bezalako taldeen kantuak joko dituzte herriko hainbat musikaririk.

**ARRI**

Industria Hornidurak  
Burdindegia

Gorbar auzoa, 10 • Tel.: 943 78 11 18  
suministrosarri@hotmail.com

Orain Oñatiarron  
zerbitzura!



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12  
Tel. Faxe: 943 71 62 40

# MARTXAN DA ELTZIA

► Eltzekideek sortutako proiektua ETEOn kokatzeko arkitektua kontratatu da eta Musika Eltzeko obrak esleitzear daude

Eltzia egitasmoak beste urrats bat eman du. 2014. urteko lehen sei hilabetean eltzekideek eginiko lanarekin Eltzia egitasmoaren oinarriak definitu ziren: ze espazio aurreikusten diren eta nola kudeatu beharko litzatekeen. Hurrengo urratsa planteaturiko ekimenak garatu ahal izateko eraikina egokitzea izango da.

Egokitzapen horren lehen zirriborroa otsailerako prest egotea aurreikusten da. Behin esku artean izanda eta udara arte aurkezpen, kontraste, osatze eta definitze fasean sartuko da Eltzia.



## Proiektua garatzeko lanen diseinua egingo duen arkitektua kontratatu du Udalak

Izaskun Legaristi arkitekto oñatiarra arduratuko da eltzekideen beharrak ETEO zaharreko eraikinean kokatzeaz, arlo arkitektoari dagokionean.

Gaur egungo erabiltzaileek behin-behineko erabilerarako auzolanean atondu zituzten erakinen hainbat espazio, baina egunerokotasuneko erabilerak moldaketa sakonago baten beharra azaleratu du.

Planteamendua ez da eraikin berri baten diseinuan pentsatzen hastea. Baizik eta eraikinak gaur egun eskaintzen dituen aukerak ahalik eta gehien aprobetxatzea obra handietan sartu gabe. Erabilera-espazioak ahalik eta balio aniztunak izatea zainduko da.

Fase honetan ere, eltzekideen parte hartzea oso garrantzitsua izango da, beraz, momentu oro, arkitektuaren proposamenak eltzekideekin kontrastatuak eta euren ekapenekin aberastuak izango dira.

## Prest da Musika Eltziaren arkitekto plana obren lizitaziorako

Esku artean dauka Udalak Musika Eltziaren arkitekto plana eta 2015eko lehenengo hiruhilekoan hasiko dira obrak eta udarako amaituta egotea aurreikusten da.

Bi fasetan egingo dira. Lehenengoan 30 m<sup>2</sup> inguruko hamar lokal eta 70 m<sup>2</sup>-dun aretol bat egingo dira. Erabilera eta okupazioaren balorazio bat egin ondoren bigarren fasean egin beharreko lanak finkatuko dira, nahiz iada diseinatuak dauden.

Bitartean Musika Eltzekideek txokoaren funtzionamendua definitzen jarraituko dute. Fase "teknikoa", obrak definitzea, pasata funtzionamenduaren zehaztapenetan sartuko dira: lokalen egunerokotasuneko erabilera oinarriak zehaztuko dituzte.



## Proiektuaren azalpen erronda abian da taldez talde



Prozesuan zehar eltzekide diren talde guztietako kideren batek parte hartu arren proiektuaren nondik norakoaren azalpenak denei helaraziko zaizkie, ez ordezkartza bati bakarrik. Horretarako banan ba-

nan egoera aurkeztu zaie, egokien iruditzen zitzaion ordu, egun eta lekuan.

Eltzekide gehienek jaso dute informazioa iada. ta positiboki baloratu da.



## Guardiako farmaziak

(gaueko 10ak arte)

### ANDUAGA

San Lorentzo 3, 943 78 21 16  
Abenduak 10, 11, 19, 20, 21, 29,  
30 eta 31.

### IGARTUA

Kale Zaharra 1, 943 78 01 22  
Abenduak 4, 12, 13, 14, 22 eta 23.

### GARATE

Kale Barria 42, 943 78 05 58  
Abenduak 5, 6, 7, 8, 15 eta 16.

### JULDAIN

Kale Barria 6, 943 78 11 28  
Abenduak 9, 17, 18, 24, 25, 26,  
27 eta 28.

## Guardiako taxilariak

**ABENDUAK 1 - 7**  
IOSU LERTXUNDI  
663 031 322

**ABENDUAK 8 - 14**  
ANA ORUETA  
943 534082 / 650 059 999

**ABENDUAK 15 - 21**  
JOSEBA ARANZABAL  
943 78 02 52 / 636 257 169

**ABENDUAK 22 - 28**  
JUAN JOSE URRRA  
943 79 71 72 / 606 004 340

**ABEN. 29 - URTAR. 4**  
JAVIER MARQUEZ  
943 78 00 39 / 619 10 43 33

**OÑATIKO TAXI GELTOKIA**  
943 78 03 65

**MINUSBALIDOENTZAT EGOKITUTAKO TAXIA**  
943 400 500

## Telefonointeresgarriak

### UDALETXEA

Udaletxea .....943 78 04 11  
Udaltzaingoa .....943 08 10 00  
Oñargi .....943 78 07 08

Gizarte zerbitzua .....943 03 77 00  
Enplegu zerbitzua .....943 03 77 00  
Olaburu zentroa .....943 71 62 73

### TURISMOA

Turismo bulegoa .....943 78 34 53  
Arrikutz Kobak .....943 08 20 00

### KULTUR ETXEA

Kultur Etxea .....943 78 03 53  
KZ Gunea .....943 02 36 72  
Liburutegia .....943 71 61 11

### EUSKARA-HEZKUNTZA

Euskaltegia .....943 78 24 96  
Txaloka Ludoteka .....943 25 07 15  
Txiki Txoko Haur Eskola .....943 71 64 05

### KOMUNIKABIDEAK

Oñati Irratia .....943 78 20 72  
Kontzejupetik .....943 78 20 72  
GOIENA .....943 25 05 05

### KIROLAK

Kiroldegia .....943 71 63 75  
Aloña Mendi K. E. ....943 78 08 10

### GAZTELEKUA

Gaztelekua .....943 71 60 94  
Informazio bulegoa .....943 71 82 57  
Informatika gela .....943 78 33 04

### BESTE BATZUK

Natur Eskola .....943 71 60 94  
Musika Eskola .....943 78 31 74  
Helduen Eskola .....943 78 35 77  
Bake epaitegia .....943 78 02 54  
Korreos .....943 78 08 54  
Notaritza .....943 78 04 15  
Parrokia .....943 78 18 98

### OSASUNA

Oñatiko anbul. ....943 03 54 30  
Larrialdi zerb. ....943 46 11 11  
Arrasateko osp. ....943 03 53 00  
SOS DEIAK .....112  
Gurutze Gorria .....943 76 55 76  
DYA .....943 46 46 22

### ERTZANTZA

Bergara .....943 53 47 20

### SUHILTZAILEAK

Oñati .....943 41 53 01

### GARRAIOAK

PESA .....902 10 12 10  
RENFE .....902 24 02 02

## Odol ateraldia

### HURRENGO ATERALDIK

#### ABENDUAK 12

Txantxiku Ikastolako aretoan  
(San Juan kalea, 1)  
17:30 - 19:30

## Auzoetako plastiko bilketa

### HURRENGO BILKETAK

#### ABENDUAK 16

Plastiko batzea ohiko bilketa  
puntuetan egingo da.  
Bilketa lekuak:  
Zañartu: Zuazola inguruan  
Murgia: Asentsio ermitan  
Olabarrieta: Bus geltokian  
ETEO atzealdean

## Urrutxuko garbigunea

Astelehenetik ostiralera  
9:00-13:30 / 15:00-19:00  
Larunbata 9:00-13:30

Tfn.: 943 78 36 67

## Traste zaharren bilketa

### HILEKO OSTEGUN GUZTIETAN

Traste zaharrak atera baino  
lehen, 943 71 19 38 zenbakira  
deitu behar da. Traste zaharrak  
20:00-22:00  
arteana atera behar dira.

## Merkatu Txikia

**Garaje** itxia saltzen da. Ugarkalde auzoan garaje librea, bi kotxe sartu daitezke. Interesatuak deitu: 600 602 164

**Garajea** salgai edo alokairuan Ugarkalden. Garaje itxia, 18m2. Deitu: 610751 017 / 645 515 257

**Garajea** saltzen da, 2 plazatakoea, itxia, Arantzazuko Ama kalean. Deitu, 658 759 539

**Garajea** alokatzen da Ugarkalde auzoko 2. atarian. Deitu: 629489613.

**Duplexa** salgai. Ultzezin kalea 11, behe solairuan dagoena. Etxeak 150m<sup>2</sup> balia garriak ditu. Baita 17,50m<sup>2</sup>-ko garaje itxia eta 100m<sup>2</sup>-ko lorategia. Prezioa 355.000€. Deitu: 609074127 / 649887917

**Etxebizitza tasatua** salgai Ugarkalden. Sukaldea, egongela, komuna, 2 logela eta 110 m<sup>2</sup>-ko terraza. Garajea eta trasteroa ere badu. Tel.: 652761437 (Oihana).

**Oñati-Lasarte joan-etorria.** Astelehenetik ostiralera Oñati-Lasarte (edo inguruko herriren batera) joan-etorria egiten baduzu, bidaia-gastuak konpartitu ditzakegu. Goizez joan eta arratsaldezt bueltatzen naiz. Interesatuta bazaude, deitu: 663 33 95 69

**Oñatin**, pisua alokagai Ugarkalden. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela eta terraza. Prezioa: 650€. Deitu: 645719884

**Oñatin**, pisua alokagai Kale Zaharrean. 3 logela, sukaldea, komuna eta egongela. Guztiz barrituta. Komunitadeko gastuak barne. Prezioa: 650€. Deitu: 645719884

kontzejupetik@oinati.net / 943 78 20 72

## Antxiñako fotografía

### Murgialdaiko Aitta Fermin Altuberen meza barrikua

**U**rrixaren 23an bete dira 70 urte Murgixa auzoko frantziskotar oñatiar honek **meza barrixa** Arantzazun emun ebela. Orduko argazkixa dogu gaurko hau: hogeta hiru urteko fraide gaztia senidez, adis-kidez eta Arantzazuko komentu-kidez inguratuta agerketan xaku bertan. Gehixenak familixakuak eta Murgixakuak dira, baiña beste auzo batzuetakuak eta kalekuak be badagoz. **Murgialdai bi bizi-tzatak**o baserrixa da aspalditxotik: **Altubetarrak** dira batekuak eta **Galdostarrak** bestekuak.

**Fermin Altube** azkenadi hone-tan Arantzazun erretirauta bizi bada be, denpora askuan Bidaurretako hospederexian egon denez, **kaletar askok ezaguketan dogu**. Sermolari moduan batera eta bestera ibili zan Euskal Herri osuan eta liburu interesgarri bat itzi dosku: *Oñatiko Murgia auzoa. Gure aurrekoak gogoratuz*, Arantzazu 1999. Goittik behera eta ezkerretik eskumara honeitxek dittuzue fotografixa honeta agiri diranak:



Goixeneko illaran: **Nikolas Markuleta Altube**, Danbolingua (Larraña); **Gillermo Bikuña Altube**, Erbiña (Larraña); **Hilarion Umerez**, Auzotxo kaleko (Martzelino Zelaia gaur egun) ardau-saltzaillia; **Maria Urriz** eta **Matias Rodriguez Irizar** Bilboko andra-gizonak (Matias Murgialdain jaixua zan); **Joxe Ugarte**, Jargikua (Murgixa); honen aurrian **Bittori Elorza**, Santa Kruzkoa (Murgixa); **Tomas Galdos**, Murgialdaikua (Murgixa); **Martina Biain**, Jauregikua (Murgixa), monjia; **Migel Madinagoitia**, Kortakua (Larraña); **Fermina Urzelai**, Olakua (Larraña); **Juana (X.)**, Araozkoa; **Julian Biain**, Ume-rezkua (Murgixa); **Mari Kruz Ugarte**, Guillermo Bikuñaren andria; eta **Karmen Markuleta**, Nikolas Markuletaren emaztia.

Bigarren illaran erdixan: **Patxi Elorza**, Santa Kruzkoa, Kale Zaharreko fotografua; **Kalista Ezenarro**, Unaingua (Gari-bai); **Frantziska Altube Irizar**, Murgialdakua, **Eulali** alabatxua besuetan dakola; Kortako **Modesta**, Migel Madinagoitia-ren andria; **Felisa** eta **Maria Arantzazu Altube Irizar** ahizpak, Murgialdaikuak; **Ebarista Idigoras Irizar** Imittolakua (Ola-barrieta); **Maria Luisa Galdos Urzelai**, Murgialdakua; **Teodoro Markuleta Anduaga** frantziskotarra, Lizarraldeko semia (Bereza), urte haretako San Ignazio egunian meza barrixa emundakua; eta honen anaia **Joxe Markuleta Anduaga**.

Hirugarren illaran behian: **Pedro Urzelai**, Amiñokua (Olabarrieta); **A. Karlos Gastesi**, sasue haretan eta geruago be Arantzazuko fraide ezaguna; **A. Arkangel Mitxelena** frantziskotarra, Arantzazuko guardian; **Blas Altube Ugarte**, Murgialdaiko aitta; **Fermin Altube Irizar**, meza barrixa emun ebena; **Frantziska Irizar Urzelai**, Murgialdaiko ama; **A. Demetrio Garmendia**, sermolari ospetsua; **Dionisio Altube Irizar**, Murgialdaiko etxejoaun gaztia; eta honen emaztia **Juliana Madinagoitia** araoztarra, Pilartxo alabiarekin.

Beheko umiak: **Bixente Urzelai**, Amiñoko artzaiña; **Juanita** eta **Rosarito Altube Madinagoitia**, Murgialdaiko ahizpak; **Mertxe Galdos Urzelai** Murgialdakua, monjia; eta **Kontxi Altube Madinagoitia**, Murgialdakua.

J. E.

Fotografixa Isidro Garro fraide argazkilarixak ataratakua izango da, Arantzazuko oroigarrixen denda zaharraren aurrian. Guri Fermin Altubek berak eskuratu dosku, argibiderik gehixenak letxe. Milla esker.

# Kafe **OTAMENDI** Taberna

## Inportazioko Garagardoak

Gosariak

## GABON JAI ZORIONTSUAK!!

Martzelino Zelaia 1 • Tel.: 943 78 19 49

**SUMMER  
IN THE USA**

UNIVERSITY PROGRAM • LANGUAGE EXCH • VOLUNTEER PROGRAM • RECREATION FAMILY

Pelikuletan  
bezala!

ADINA: 3. ESOtik  
unibertsitateko lehen mailara  
DATAK: uztailera

### NW YOUNG LIFE CAMP

3 aste FAMILIAN + aste 1 KANPAMENTUAN



SEATTLE/PORTLAND 3.995€

### HOMESTAY LINGUISTIC

4 aste FAMILIAN ingeles intentsiboa!



SEATTLE 3.995€

### NW ADVENTURE CAMP

3 aste FAMILIAN + aste 1 ABENTURAZKO  
KANPAMENTUAN



SEATTLE/PORTLAND 3.995€

### MAINE ADVENTURE

4 aste FAMILIAN + ABENTURAZKO  
EKINTZAK



LEWISTON/PORTLAND 3.995€

*Gabon hauegarako opari ezin hobea!*

*Programa bukoitzak  
plaza mugatuak dituz!*

*Egonaldia familia batean! Prezioan dena barne dago!*

bera emateko,  
[www.summerintheusa.com](http://www.summerintheusa.com) web orrian sartu  
eta "inscripcioi" on ikiala.  
INFORMAZIO GELIAGO: 943-22-49-32  
EMAILA: [office@summerintheusa.com](mailto:office@summerintheusa.com)

Orain



banak importa



zuretako  
zuzenean...



BANAK

Zerkaosteta, 3

Tel.: 943 71 10 11

SOFA LEKU - KOLTXOI LEKU

Zigarrola, 1

Tel.: 943 79 15 03



GABONETAKO APAINGARRIAK NEHAR DITUZU?



centro hogar MUEBLES

sofa  
leku

koltxoi  
leku



Amuebladora mondragonesa taldeak, gabon zoriontsuak opa dizkizue!